

Fiskalizazio Txostena

Informe de Fiscalización

**Euskal Autonomia
Erkidegoaren Administrazio
Orokorren Kontua**

**Cuenta de la Administración
General de la Comunidad
Autónoma del País Vasco**

2017





AURKIBIDEA / ÍNDICE

LABURTZAPENAK.....	7
I. SARRERA.....	9
II. IRITZIA.....	10
II.1 Legea betetzeari buruzko iritzia.....	10
II.2 Administrazio orokorraren kontuari buruzko iritzia.....	11
III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK.....	12
III.1 Aurrekontuak eta kontabilitatea.....	12
III.2 Langileria-gastuak.....	12
III.3 Diru-laguntzak.....	13
III.4 Kontratazioa.....	15
III.4.1 Aurreko ekitaldietan esleitutako espedienteak.....	15
III.4.2 2017an esleitutako espedienteak.....	15
III.4.3 Kontratu txikiak.....	16
III.5 Abalak.....	17
III.6 Bestelako alderdiak.....	17
IV. FINANTZA-ANALISIA.....	18
V. 2017KO EKITALDIKO KONTUAK.....	23
ERANSKINAK.....	29
A.1 Araudi ezargarria.....	29
A.2 Aurrekontuko aldaketak.....	30
A.3 Langileria-gastuak.....	31
A.4 Funtzionamendu-gastuak.....	33
A.5 Transferentziak eta diru-laguntza arrunt eta kapitalekoak.....	34
A.6 Inbertsio errealak.....	36
A.7 Finantza-aktiboen gehikuntza.....	38
A.8 Tasak eta bestelako sarrerak.....	39
A.9 Transferentzia arruntengatiko sarrerak.....	39
A.10 Kapital-transferentzietan eragindako sarrerak.....	40
A.11 Finantza-aktiboen gutxitzea.....	41
A.12 Kobratzeke eta ordaintzeke dauden hondarrak.....	42
A.13 Diruzaintza.....	42
A.14 Aurrekontuz kanpoko eragiketak.....	43



A.15	Zor publikoa	45
A.16	Emandako abalak	48
A.17	Konpromiso-kredituak	49
A.18	Kontratazioa	50
A.19	Diru-laguntzen analisia	58
A.20	Kontabilitate publikoa.....	60
A.21	Lurraldeka bereizitako gastuak eta sarrerak	62
ALEGAZIOAK		67
ABREVIATURAS		79
I. INTRODUCCIÓN		81
II. OPINIÓN		82
II.1	Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad.....	82
II.2	Opinión sobre la cuenta de la administración general	83
III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN.....		84
III.1	Presupuestos y contabilidad	84
III.2	Gastos de personal	84
III.3	Subvenciones.....	85
III.4	Contratación	87
III.4.1	Expedientes adjudicados en ejercicios anteriores	87
III.4.2	Expedientes adjudicados en 2017	87
III.4.3	Contratos menores	88
III.5	Avales.....	89
III.6	Otros aspectos.....	89
IV. ANÁLISIS FINANCIERO		90
V. CUENTAS DEL EJERCICIO 2017.....		95
ANEXOS		101
A.1	Normativa aplicable	101
A.2	Modificaciones presupuestarias	102
A.3	Gastos de personal	103
A.4	Gastos de funcionamiento.....	105
A.5	Transferencias y subvenciones corrientes y de capital.....	106



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.6	Inversiones reales.....	108
A.7	Aumento de activos financieros	110
A.8	Tasas y otros ingresos	111
A.9	Ingresos por transferencias corrientes	111
A.10	Ingresos por transferencias de capital	112
A.11	Disminución de activos financieros	113
A.12	Residuos pendientes de cobro y pago	114
A.13	Tesorería.....	114
A.14	Operaciones extrapresupuestarias.....	115
A.15	Deuda pública	117
A.16	Avales concedidos	120
A.17	Créditos de compromiso.....	121
A.18	Contratación	122
A.19	Análisis de subvenciones.....	130
A.20	Contabilidad pública.....	132
A.21	Gastos e ingresos territorializados.....	134
ALEGACIONES		139

Vitoria-Gasteiz, 2019ko uztailaren 24a
Vitoria-Gasteiz, a 24 de julio de 2019





Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

LABURTZAPENAK

GKE	Gobernu Kontseiluaren Erabakia
IEB	Inbertsioen Europako Bankua
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa.
EIBM	Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoa.
FPEK	Finantza Publikoen Euskal Kontseilua
ETS	Euskal Trenbide Sarea
BEZ	Balio Erantsiaren gaineko Zerga.
SPKL	30/2007 Legea, 2007ko urriaren 30ekoa, sektore publikoko kontratuei buruzkoa.
DLO	38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Diru-laguntzei buruzkoa.
AEFILO	2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontuaren Egonkortasunari eta Finantzaren Iraunkortasunari buruzkoa
EHTSB	Euskal Herriko Trenbide Sare berria.
KEB	Kontrol Ekonomikoko Bulegoa
EAEKPP	Euskal Autonomia Erkidegoaren Kontabilitate Publikoko Plana, 2012ko ekainaren 25eko Agindu bidez onartutakoa, Ekonomia eta Ogasun Sailburuarena.
ETE	Enpresa txiki eta ertainak
APKLEO	1098/2001 Errege Dekretua, urriaren 12koa, Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra onartzeko dena.
EKKLTB	2/2017 Legegintzako Dekretua, urriaren 19koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bategina onesten duena.
SPKLTB	3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onesten duena.
EAEHONALTB	1/1997 Legegintzako Dekretua, azaroaren 11koa, 1/1997 Legegintzako Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri-ogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duena.
EAETB	1/2011 Legegintzako Dekretua, maiatzaren 24koa, Euskadiko aurrekontu araubidearen gaitan indarrean dauden legezko xedapenen testu bategina onartu eta EAeko Sektore Publikoko Fundazio eta Partzuergoei ezargarria zaien aurrekontuko araubidea arautzen duena.
EHU	Euskal Herriko Unibertsitatea
VISESA	Euskadiko Etxebizitza eta Lurra, SA - Euskadiko Etxebizitza eta Lurra, E.A.





I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak (HKEE), berau arautzen duen 1/1988 Legean eta 2017ko ekitaldirako Urteko Lan Programan xedatutakoaren arabera, 2017ko ekitaldirako Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorraren Kontuaren fiskalizazio txosten hau egin du.

Alderdi hauek aztertu ditu fiskalizazioak:

- Legezkoak: ea aurrekontuaren, zorpetzearen, finantza eragiketen, langileriaren, obra, zerbitzu eta hornidura kontratazioaren, laguntza eta diru laguntzak publikoak ematearen, eta zuzenbide publikoko sarreren arloetan aplikagarri den araudia betetzen den aztertu da.
- Kontularitzakoak: aztertu da ea Kontua ezargarri diren kontularitzako printzipioen arabera gauzatzen den.
- EAEko Administrazio Orokorraren egoera ekonomikoaren finantza analisia.
- Lanean ez da jaso gastuaren eraginkortasunari eta efikaziari buruzko analisia. Hala ere, aurkitu diren hutsak «Barne kontroleko sistemei eta kudeaketa prozedurei buruzko gogoetak» epigrafean azaldu dira xehetasunez.



II. IRITZIA

II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

1.- 33 zenbakiko espedientea, 6 milioi euroan esleitu zena, presako prozedura baliatuta izapidetu zen, aparteko prozedura hau baliatzeko SPKLTBren 113.1 artikulua bereizten dituen egoerak gertatu gabe.

2.- 780.000 euroan esleitutako 35. zenbakiko espedientea lizitatzeko publikotasunik gabeko prozedura negoziatua erabiltzean, ez da aski justifikatu lehiatik salbuestea, SPKLTBren 173.c eta 170.d artikuluei jarraituz (B2 akatsa) (ikus A.18).

3.- 2017ko apirilaren 25eko, 2017ko abenduaren 26ko eta 2018ko ekainaren 12ko Gobernu Kontseiluek euren gain hartu dute 2017ko ekitaldiko gastuen aldeko fiskalizazio juridiko eta ekonomikoa, Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bateginaren 24.4 artikuluan aurreikusitako aparteko prozedura baliatuta; gastu horiek 57,7 milioi eurorenak izan dira, zeinen gainean EKBk aurkako txostena egin baitzuen. Gastu horiek honako hauei dagozkie: 19 milioi euroren 92 zerbitzu kontratari; 37,3 milioi euroren zerbitzu publikoak kudeatzeko 20 kontratari; eta 1,4 milioi euroren 5 kontratari. Ez-betetze nagusia izan da prestazioak egitea dagokion kontratu-espedientea izapidetu gabe, SPKLTBn finkatutakoaren arabera legozkioken publikotasun eta lehia printzipioak bete gabe (ikus A.18).

Gure ustez, aurrez azaldutako salbuespenak alde batera utzita, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrak 2017. ekitaldian arrazoizko eran bete du bere ekonomia eta finantza jardura arautzen duen lege araudia.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

II.2 ADMINISTRAZIO OROKORRAREN KONTUARI BURUZKO IRITZIA

Gure iritziz, eta 2017ko aurrekontuaren likidazioan jasotako 1.tik 4. oharrera bitartekoetan adierazitakoa aintzat hartuta, honekin batera doazen EAeko Administrazio orokorraren kontuek alderdi nabarmen guztietan adierazten dute 2017ko ekitaldiko ekonomia jarduera, 2017ko abenduaren 31ko ondarearen eta finantza egoeraren irudi zehatza, bai eta egun horretan bukatutako urteko ekitaldiari dagozkion bere emaitzena eta eskudiruzko fluxuena ere, aplikagarri den finantza informazioko arau esparruari jarraituz, eta, bereziki, hor jasotako kontabilitate printzipio eta irizpideei jarraikiz.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan jasota daude, alde batetik, ekonomia eta finantza jarduera zuzentzen duten printzipioak betetzean eragin nabarmenik ez duten hutsuneak; eta, bestetik, kudeaketa hobetzeko agerian jarri diren prozedurazko alderdiak.

III.1 AURREKONTUAK ETA KONTABILITATEA

3.1.1.- VISESA sozietate publikoari emandako diruzaintzako aurrerakinak aurrekontuz kanpo erregistratu dira, guztira 22,7 milioi euroan, eta horien destinoa izan da sozietatearen egoitzaren eta saltzeko dauden babes ofizialeko etxebizitzien izakinen finantzaketa iragankorra. Aurrerakin horiek 2008ko ekitaldian eman ziren lehenengo aldiz, 19 milioi euroren zenbatekoan, eta urtez urte berritu dira.

2018ko abenduaren 27an kitatu egin da aurrekontuz kanpoko zorpetze hau eta 8 urtetarako 10 milioi euroren mailegu bat izenpetu da.

3.1.2.- Egoeraren Balantzeak ez du ibilgetuko hainbat kontu-sail osatzen dituzten ondasun guztien banakako xehapenik, hala nola, instalakuntza teknikoak, ekipo informatikoak, makineria, lanabesak eta altzariak, aplikazio informatikoak, etab. Elementuak erositako urtearen arabera taldekatuta erregistratzen dira. Horrela erregistratutako zenbateko osoa 170,8 milioi euro da.

3.1.3.- EA Eren Sektorre Publikoaren Aurrekontu Orokorren eta Urteko Kontuen likidazioan jasotako informazioak EA Eren Ekonomia Kontrol eta Kontabilitateko Legearen testu bateginaren 8. artikulua eta Euskadiko Aurrekontu Araubidearen testu bateginaren 124. artikulua gutxiengo izaerarekin eskatzen duten informazioa jasotzen du. Gomendagarria litzateke EA Eren sektore publikoa osatzen duten erakunde multzoaren egoera bateratuak barne hartzea, horien guztien ekonomia, finantza eta ondare egoera, eragiketen emaitza eta aurrekontuen likidazioa erakutsiko dutenak.

III.2 LANGILERIA-GASTUAK

3.2.1 Indarreko Lanpostu Zerrendek ez dituzte 2017ko ekitaldian aurrekontuko zuzkidura zuten 1.184 plaza barne hartzen, ondoko xehakapenaren arabera:

LANGILE MOTA	PLAZA KOPURUA
Justiziako langileak	1.025
Hezkuntza Saileko langileak.....	96
Nekazaritza ganberetatik eta jabetza ganberetatik datozen lan kontratuko lang.	2
Hainbat sailtako langileak	52
Tokiko osasun langile farmazeutikoak eta Osakidetzatik datozenak	9
GUZTIRA	1.184



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Justiziako langileen plazak Bilboko eta Donostiako bulego judizialei dagozkie. Langileen lanpostu zerrendak onartzea EAEren Administrazio orokorraren egitekoa da, aldeztu aurretik Botere Judizialaren Kontseilu Orokorraren aldeko txostena jasota, Botere Judizialaren 1985eko uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoko 522 artikuluan xedatuta dagoenez. Esan beharra dago otsailaren 27ko 29/2018 Dekretu bidez onartu zirela EAEko Justizia Administrazio Lanpostuen Zerrendak, Donostiako Bulego judizialekoak (310 plaza) eta Gipuzkoako Probintzia Auzitegikoak (10 plaza).

III.3 DIRU-LAGUNTZAK

Diru-laguntza zuzenak

3.3.1.- Administrazio orokorrak Jaurlaritzako Kontseiluaren Erabaki bitartez 2,9 milioi euroren diru-laguntza zuzenak eman dizkie 12 onuraduni; onuradun horiek aurreko bi ekitaldietakoren batean ere helburu bererako diru-laguntzak jaso zituzten (ikus A.19, A.1 akatsa).

Baldin diru-laguntza horiei datozen ekitaldietan eusten bazaie, komenigarria litzateke dagozkien aurrekontuetan izenez jasotzea.

3.3.2.- A.19 eranskinean jasotako diru-laguntzak aztertu ditugu eta honako alderdi hauek dira azpimarragarriak:

- Udal batekin izenpetutako lankidetzak-hitzarmen batean, 27,9 milioi euro egin dituenean, ez da jasotzen finantzaketa-bermearen klausula, Euskadiko Tokiko Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 24. artikuluan aurreikusitakoa.
- 1 milioi euroren zenbateko diru-laguntza batean ez da inongo prozedurarik finkatu jasotako helburu bereko beste laguntza batzuekiko bateragarritasunaren muga bete izana egiaztatzea bideratuko duenik (ikus A.3 akatsa).
- Auzo jakin batzuk berroneratzeko emandako 4,3 milioi euroren bi diru-laguntzatan izaera berezia zuten jarduerak subentzionatu dira, aurrekontuaren % 15 gainditzen ez dutenak; baita Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailburuaren 2016ko abenduaren 28ko Aginduan aurreikusirik zeuden beste batzuk ere. Diru-laguntza zuzenen emakida soil-soilik egoera berezietan baliatzea gomendatzen dugu, gainerakoak izaera orokorreko deialdietara lerratuaz (A.4 akatsa).



Lehiaketa publiko bidez emango diren diru laguntzak (ikus A.19)

3.3.3.- Hamabi diru-laguntza lerro arautzen dituen arautegia aztertzean –A.19an dago xehakatur-, honako akats hauek azalerau dira:

- Berrikusi ditugun 12 lerroetatik hiruk (7, 8 eta 11 zk.) ez dute onartutako plan estrategikorik, eskuratu asmo diren helburu eta ondorioak, beharrezkoa den epea, aurreikus daitezkeen kostuak eta finantzaketa-iturriak zehaztuko dituenik, Diru-laguntzen Lege Orokorraren 8.1 artikulua betez (B1 akatsa).
- “Banda zabaleko sareak hedatzeko laguntza-programa” 1. lerroaren balorazio irizpideak modu oso orokorrean formulatzen dira eta puntuazio-tarte zabala ematen zaie, azpi-irizpideetan edo balioztatuko diren elementuen ulergarritasuna erraztuko duten elementutan xehakatu gabe, DLOren 17.3 artikulua agintzen duen moduan (B2 akatsa). Lerro honetan beretan, oinarritzko alderdietan zehaztasun-eza dago, hala nola, zenbatekoa den laguntza, eskabidea egin aurretik abiarazi gabeko proiektuak izatea, EAEHONALTBren 51.1 artikulua agintzen duen moduan (B3 akatsa).
- Aztertu ditugun 12 lerroetatik 9tan (1, 3, 6, 7, 8, 9, 10, 11 eta 12 zenbakiak), gainera, gomendagarria litzateke aurrekontuko memoriak adierazleak txertatzea, lagundutako proiektu eta enpresa kopuruaren kuantifikatze hutsa egitera mugatu barik, efikazia eta efizientzia neurtzea ere bideratuko dutenak (B4 akatsa).
- Aztertu diren 12 lerrotatik 4tan (3, 4, 5 eta 10 zenbakiak) ez dira laguntzak emateko ebazpenak argitaratu, EAEHONALTBren 49.2 artikulua agintzen duen moduan (B5 akatsa).
- Aztertu ditugun lerroetatik 2ren araudiak (4 eta 7 zk.) DLOren 29. artikulua zehazten dituen birkontratatzeko arauak jaso behar litzuzke eta DLOren 31. artikuluko diru-laguntza gastuei buruzko arauak, besteak beste, 3 eskaintza eskatzekoa gastuak finkatutako kopurua gaingitzen duenean (B6 akatsa).
- “Euskadin gizarte mailako esku-hartzearen esparruan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko diru-laguntzak, gizarte mailako esku-hartzerako ezagutza kudeatzeko jardueretarako” 6 zenbakiko lerroan, ez da justifikatzen zein arrazoik eragin duten diru-laguntza lerro hau indarrean jarraraztea, lau urtez jarraian etenda egon ondoren, ez eta zein diren deialdiaren Aginduak ezartzen dituen mugak laguntzaren zenbatekoan, zeharkako kostuetan edo balorazio-irizpideei aitortutako haztaperetan (B7 akatsa).



III.4 KONTRATAZIOA

Ekitaldi honetan egikaritu diren eta lehenagoko ekitaldietan esleitu ziren 50 espedienteko lagina eta 2017an esleitutako 20 espedienteko lagina aztertu dugu. Aztertutako espedienteen zerrenda A.18 eranskinean dago.

III.4.1 AURREKO EKITALDIETAN ESLEITUTAKO ESPEDIENTEAK

- Guztira 143,4 milioi euroan esleitutako 3 espedientetan (1, 8 eta 23 zenbakiak) 3 hilabeteko epea gairatu da behin obrak hartu ondoren azken ziurtagiria onartzeko, SPKLren 218. artikulua eta SPKLTBren 235. artikulua zehazten dutena. Atzeraldiak 1,5 eta 9 hilabete bitartekoak izan dira (F1 akatsa).
- 10 zk. espediente baten 724.717 euroren aldaketa izapidetzean, zeina 184,4 milioi euroan esleitu baitzen, urratu egin dira proiektuaren eta espedientearen onspen teknikoa gauzatzeko SPKLren 217.4 artikulua zehazten dituen epeak, 6 eta 8 hilabetekoak hain zuzen ere (F2 akatsa).
- Guztira 5,7 milioi euroan esleitutako 2 espedientetan (14 eta 15 zk.), obraren amaiera epeak iraungita eta obra guztiz ziurtatua egonik, ez da obraren azken ziurtagiria onartu, SPKLTBren 235. artikulua agintzen duen moduan (F3 akatsa).

III.4.2 2017AN ESLEITUTAKO ESPEDIENTEAK

- 7,2 milioi euroan esleitutako 25 zk. espedienteetan, obraren alde aurreko zuinketa proiektua onartu aurretik egin zen (A1 akatsa). Espediente honetan berean, zuinketa egiaztatzeko eta obrari hasiera emateko akta, SPKLTBren 126.1 artikulua arautzen duena, gorabeherarik gabe izenpetu zen; obrari hasiera, baina, 4 hilabete beranduago eman zitzaion (D1 akatsa).
- Guztira 100,8 milioi euroan esleitutako 4 espedientetan (30, 37, 38 eta 41 zenbakiak), eskaintza ekonomikoaren irizpidea balioztatze baliatutako formula matematikoak puntuazioa aitortzen die lizitazio-prezioa berdintzen duten eskaintzei (A2 akatsa).



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- Guztira 102,6 milioi euroan esleitutako 4 espedientetan (25, 30, 37 eta 38 zenbakiak), pleguek irizpide orokorrak jasotzen dituzte, hala nola, proposamenaren definizio eta koherentzia maila, obraren planifikazioaren sistematizazioa eta justifikazioa, lanen programazioaren koherentzia etab. (A3 akatsa). Balio judizio baten baitako diren balorazio-irizpideek 139. artikulua jasotzen duen gardentasun-printzipioa beteko badute, argi eta garbi adierazi beharko dituzte irizpideak, enuntziatuan lausotasuna saihestuz.
- Guztira 39,4 milioi euroan esleitutako 2 espedientetan (28 eta 38 zenbakiak), Pleguaren balorazio-irizpideetako batzuk kaudimen teknikoari egiten diote erreferentzia; honenbestez, onarpen-irizpide behar lukete izan, ez, baina, baloraziokoak, SPKLTBren 62tik 64ra bitarteko artikulua (A4 akatsa).
- Guztira 23,8 milioi euroan esleitutako 5 espedientetan (27, 28, 29, 32 eta 31 zenbakiak) gainditu egin da kontratua esleitzeko SPKLTBren 161. artikulua finkatzen duen 1,5 eta 5 hilabete bitarteko epea (C1 akatsa).
- 350.000 euroren zenbatekoan esleitutako 44 zenbakiko babesletza kontratuaren espedientean ez da prestazioen oreka ekonomikoa justifikatzen (E1 akatsa).

III.4.3 KONTRATU TXIKIAK

- Guztira 559.411 euroren zenbatekoan kontratatutako 40 ondasun eta zerbitzuen kontratazioa aztertzean, zuzenean kontratatu direla ikusi dugu, kopurua aintzat hartuta aurretik eskaintzak eskatuta egin behar ziratekeenean; hona hemen zein saili dagozkien: Segurtasuna (16); Osasuna (11); Lana eta Justizia (9); eta Hezkuntza (4).
- Guztira 2,1 milioi euroren zenbatekoa egin duten gastuak azaleratu dira, 70 hirugarreni dagozkienak, lehiaketa bidezko lizitazio bidez kontratatuzeko gutxienekora iristen ez badira ere, elkartu litezke aleko prezioetan edo hornitzaileak homologatzeko prozedurak baliatuta lizitatzeko. Hezkuntza Saileko obra txikiei dagozkie.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

III.5 ABALAK

4 espediente aztertu ditugu Berme Publiko bidez Aparteko Finantzaketa Lerroari dagozkion abalen emakida guztiaren gainean % 60 egin dutenak; lerro hori Administrazio Orokorraren eta hainbat finantza-erakunderen artean 2012ko uztailaren 5eko hitzarmen bidez ezarri zen eta 2017ko ekitaldian indarrean egon da; espediente horiek aztertzean ondotik adierazitako egoerak azaleratu dira, hitzarmenaren baldintzak betetzean eragina dutenak:

- Administrazioak ez du Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian onuradunen zerrenda argitaratu, emandako abalen zenbatekoaren, laguntzaren zenbatekoaren eta minimis izaeraren informazioa emanez (uztailaren 27ko 151/2015 Dekretuaren 11.4 art.).
- Ez da egiaztatu enpresa berreskurapen-agindu baten baitan dagoenik, Europako Batzordeak aurretik hartutako erabaki baten indarrez, zeinaren ondorioz laguntza bat ez-legezko eta barne merkatuarekin bateraezin deklaratu baita; hala balitz, laguntza mota honen ukazioa eragingo luke.
- Enpresa txiki eta ertain izaera duen zehazteko onuradunak egindako erantzukizuneko adierazpenean jasotako datuak soilik hartuko dira kontutan. Gomendagarria litzateke administrazioak baldintza modura urteko kontuak aurkezteko eskatzea.

III.6 BESTE ALDERDIAK

- Administrazio Orokorrak 2017ko ekitaldian egindako ordainketak aztertzerakoan ikusi da merkataritzako eragiketen batez besteko ordainketa epea 32 egunekoa izan dela, merkataritzako eragiketetan berankortasunaren aurkako borrokan neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldarazten duen uztailaren 5eko 15/2010 Legeak agintzen duen gehieneko 30 eguneko epea urratuz. Bada, egindako ordainketen % 38k - 254 milioi euroren zenbatekodunek- gainditu egiten du epe hori.

Bestalde, uztailaren 25eko 635/2014, EDren 4. eta 5. artikuluetan jasotakoa aplikatzen badugu, zeinak administrazio publikoetako hornitzaileei egindako ordainketen batez besteko aldia kalkulatzeko metodologia garatzen baitu, 2,1eko ratio globala eskuratuko dugu. Horrek esan nahi du, batez beste, 2017an hornitzaileei ordainketak 32,1 eguneko epean egin zaizkiela, arau horretan ezarritako 30 eguneko gehienekoarekiko 2,1 egun gainerik..



IV. FINANTZA-ANALISIA

Ondoko taulak Aurrezki gordinak, Emaidza arruntak eta Aurrekontuko emaitzak azken lau ekitaldietan izan duten bilakaera erakusten du:

	2014	2015	2016	2017	Euroak, milioikotan	
					2017/2016	
					Aldea	%
Sarrera arruntak (1)	8.631,3	8.759,5	9.059,5	10.128,5	1.069,0	% 11,8
Zeharkako zergak (*)	5,7	3,9	3,9	4,0	0,1	% 2,6
Tasak eta beste	213,4	180,4	181,6	178,0	(3,6)	(% 2,0)
Transferentzia eta diru-laguntza arruntak	8.364,1	8.539,8	8.837,8	9.944,3	1.106,5	% 12,5
Ondare-sarrerak	48,1	35,4	36,2	2,2	(34,0)	(% 93,9)
Gastu arruntak (2)	8.304,1	8.422,1	8.668,9	8.979,7	310,8	% 3,6
Langileria-gastuak	1.884,6	1.929,5	1.972,1	2.021,0	48,9	% 2,5
Funtzionamendu-gastuak	3.285,7	3.308,8	3.388,3	3.448,9	60,6	% 1,8
Transferentzia eta diru-laguntza arruntak	3.133,8	3.183,8	3.308,5	3.509,8	201,3	% 6,1
Aurrezki gordina (3=1-2)	327,2	337,4	390,6	1.148,8	758,2	% 194,1
Finantza gastuak (4)	251,8	231,1	201,6	185,4	(16,2)	(% 8,0)
Emaidza arrunta (5=3-4)	75,4	106,3	189,0	963,4	774,4	% 409,7
Inbertsio garbiak (Gst.-Sarr. 6,7 eta 8) (6)	680,9	642,2	681,1	843,6	162,5	% 23,9
Inbertsio errealak	332,0	206,9	228,9	202,0	(26,9)	(% 11,8)
Kapital transf. eta diru-lag.	600,8	542,1	581,6	697,7	116,1	% 20,0
Finantza aktiboen igoera	85,0	73,0	111,3	104,9	(6,4)	(% 5,8)
Inbertsio errealen besterentzea	2,0	1,5	0,9	0,2	(0,7)	(% 77,8)
Jasotako kapital transf. eta diru-laguntzak	298,8	125,7	173,2	137,0	(36,2)	(% 20,9)
Finantza aktiboen gutxitzea	36,1	52,6	66,6	23,8	(42,8)	(% 64,3)
Jaulkitako zor garbia (sarr.9 – Gst.9) (7)	659,5	476,7	533,7	321,0	(212,7)	(% 39,9)
Finantza pasiboen igoera	1.139,3	1.163,0	1.106,0	975,0	(131,0)	(% 11,8)
Finantza pasiboen gutxitzea	479,8	686,3	572,3	654,0	81,7	% 14,3
Aurrekontu arruntaren emaitza (8=5-6+7)	54,0	(59,2)	41,6	440,8	399,2	% 959,6
Aurrekontu itxien emaitza (9)	13,3	(21,1)	(80,0)	(33,6)	46,4	% 58,0
Ekitaldiko Aurrekontu Emaidza (8+9)	67,3	(80,3)	(38,4)	407,2	445,6	% 1.160,4

Sarrera arruntek % 11,8 egin dute gora aurreko ekitaldiarekiko, % 3,6 gehitu diren gastu arruntan aldean; horrek ekitaldian 1.148,8 milioi euroren aurrezki gordina sortzeko bide eman du, 2016an eskuratutakoa baino 758,2 milioi handiagoa.

Sarrera arruntek 1.069 milioi euroren igoera izan dute; nagusiki, foru aldundiek ekarpen handiagoa egin dutelako: aurreko ekitaldian baino 1.098,5 milioi euro gehiago.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Gastu arruntak 310,8 milioi euroan handitu izanaren arrazoiak honako hauek dira:

- Langile-gastuetan 48,9 milioi euroren igoera, nagusiki soldatak % 1 igo direlako eta zorretan zegoen 2012ko abenduko aparteko soldata osorik itzuli delako. 2017ko ekainean 25,9 milioi euro ordaindu ziren eta 2017ko azaroan, 20,4 milioi euro.
- Funtzionamendu gastuek izandako 60,6 milioi euroren igoera (ikus A.4). Kapitulu honetan izandako gastu-handitze nagusia, aurreko ekitaldiaren aldean, Osakidetzako zentroena (ospitaleak eta eskualdeak) izan da, 113,2 milioi euro hazi baita. Aldiz, beheratzerik nagusiena abalak egikaritzetik eskuratutakoa izan da, aurreko ekitaldiaren aldean 10,1 milioi euro jaitsi baita.
- Transferentzia eta diru-laguntza arruntetan 201,3 milioi euroren igoera, honako hauen ondorioz:
 - Sektore publikoari egindako transferentziak 167,8 milioi euroan igo izana. Atal honetan aurreko ekitaldiaren aldean izan diren igoera nagusiak batetik foru aldundiei egindako transferentziak izan dira, Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak egindako berdinkatzearen ondorioz, 91,6 milioi euroena, eta bestetik, EHUri egindakoak, zenbait kontzepturen izenean, 24,9 milioi euroren zenbatekoan.
 - Sektore pribatuari emandako diru laguntzak 33,5 milioi euroan igo izana. Igoerarik esanguratsuenak ikasleei emandako beka eta laguntzetan izan dira, 32,2 milioi euroan, izan ere hezkuntza-itunak finantzatzeko kontu sailak 18,7 milioi euroan handitu dira; bereziki da aipagarria lanbide heziketako zentroekiko hezkuntza-itunetara bideratutakoa, aurreko ekitaldian bideratutakoa baino % 15 handiagoa izan baita. Adierazitakoaz gain, gehitu egin dira farmazialarien elkargoei botikak finantzatzeko egindako ordainketak, 5,9 milioi euroan.



Inbertsio garbiak 162,5 milioi euroan handitu dira. Hona hemen magnitude hau osatzen duten idazpuruetakoko bakoitzean izandako aldakuntza nagusiak:

- Egiatzko inbertsioek 26,9 milioi euro egin dute behera, Euskal Trenbide Sare berriaren Gipuzkoako bide-zatian egikaritzea 2016koa baino txikiagoa izan delako.
- Emandako kapitalezko transferentzia eta diru-laguntzak 116,1 milioi euroan gehitu dira, sektore publikorako kontu sailak 150,4 milioi euroan gehitu direlako, eta sektore publikora bideratutakoak 34,4 milioi euroan gutxitu direlako. Hona hemen sektore publikoari zuzendutako transferentziek non izan dituzten igoera nagusiak: Eusko Trenbideak SARI 39,2 milioi euro, 8 trenbide-unitate berri erosteko; Alokabide SARI 24,9 milioi euro alokairurako etxebizitzak erosteko; ETSri 11,4 milioi euro Euskal Trenbide Sare berriaren bide-zatirako; Osakidetzari 10,6 milioi euro finantzaketa eta kontratazio sanitariorako; eta Gasteizko Udalari 10 milioi euro, autobus elektrikoa ezartzeko. Sektore pribatura zuzendutako transferentzietan izan den beheraldia programetan izandako beheraldia eragin du nagusiki: Emaitek, Etortek eta BERC, Garapen Ekonomiko eta Azpiegituren Sailarena, 49 milioi euroren zenbatekoan.
- Jasotako kapitaleko transferentzia eta diru-laguntzek 36,2 milioi euro egin dute behera, batik bat FEDERekoak diren Europako Batasunetik jasotako sarrerek 25,9 milioi euro behera egin izanaren ondorioz eta 13,9 milioi euro gora beste funts batzuetatik (FEADER, FEP, FEMP...) eratorritako sarrerek; Halaber, Estatuko Administrazio Orokorrak Euskal Trenbide Sare berriaren Gipuzkoako bide-zatian obrak egikaritzeko emandako transferentziak 24,8 milioi euro txikiagoak izan dira.
- “Finantza aktiboen gutxitzea” sarreraren kapitulua 42,8 milioi euroan murriztu da honako arrazoi hauengatik: Foru Aldundien maileguaren amortizazioko urtekoa 21,6 milioi euroan murriztu delako; izan ere 2016an Arabako Foru Aldundiak eta Bizkaiko Foru Aldundiak alde aurretik amortizatu zuten zorrean zuten kapitala osorik; halaber, EAERen ondarea ez berreskuratu izanak, eta akzioak ere ez saldu izanak, 2016an 3,7 milioi euroren diru-sarrerak ekarri zituenak, eta Bideratu, Gauzatu eta Ikerketa programetako mailegu-itzulketak 9,9 milioi euro txikiagoak izateak kapitulu hau murriztea eragin zuten.


Hona hemen adierazle nagusien bilakaera grafikoan jasota:



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

AURREZKI GORDINA, INBERTSIO GARBIA ETA JAULKITAKO ZOR GARBIA



Azken lau ekitaldietan, diruzaintza geldikinaren eta formalizatutako zorpetzearen bilakaera honako hau izan da:

	Euroak, milioikotan				
	2014	2015	2016	2017	Bariazioa 2017/16
DIRUZAINZA GELDIKINAREN BILAKAERA					
Diruzaintza Geldikina	439,9	359,6	321,2	728,4	407,2
Zuzkidurak eta doiketak.....	211,5	204,9	146,1	139,5	(6,6)
Diruzaintzako geldikin erabilgarria	228,4	154,7	175,1	588,9	413,8
ZORPETZEAREN BILAKAERA					
Erabilitako zorra (balio nominala 12.31n).....	7.752,0	8.230,7	8.768,4	9.085,0	316,6
Erabili gabeko zorra.....	0	0	0	140,0	140,0
Formalizatutako zorpetzea	7.752,0	8.230,7	8.768,4	9.225,0	456,6

Diruzaintza geldikina 407,2 milioi euro gehitu da eta Diruzaintza geldikin erabilgarria, berriz, 413,8 milioi euro, zuzkidura eta doiketak 6,6 milioi euroan txikiagotu direlako.

Erabilitako zorra 316,6 milioi euroan urritu zen, eta 2017ko ekitaldia ixtean 9.085 milioi euro zen zorra (ikus A.15).

Ekitaldiko emaitza arrunta aski izan dira inbertsio garbia finantzatzeko.



AURREKONTU EGONKORTASUNEN ETA FINANTZA IRAUNKORTASUNEN HELBURUAK BETETzea

AEFILOk arautzen ditu Administrazio publikoen aurrekontu egonkortasunari eta finantza iraunkortasunari buruzko alderdiak. Lege organiko horretako hirugarren azken xedapenean zehaztuta dagoenez, lege horretan ezarritakoa Euskal Autonomia Erkidegoari aplikatzean, aintzat hartu behar da Ekonomia Itunaren Legean xedatutakoa.

Bestalde, EAErekiko Kontzertu Ekonomikoa onesten duen 12/2002 Legeko (2002ko maiatzaren 23koa) 48. artikuluan aurreikusita dago Estatuarekiko koordinazioa eta kolaborazioa, aurrekontu egonkortasunaren gaian. Lege bereko 62. artikulua, bestetik, Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoaren egitekoen artean bereizten du aurrekontu egonkortasunaren gaietan kolaborazio- eta koordinazio-konpromisoak hitzartzea.

Estatuak eta EAEk 2016ko abenduaren 20an erabaki bat izenpetu zuten, zeinaren indarrez 2017ko ekitaldiko egonkortasunaren eta zor publikoaren helburuak gaurkotu baitziren, hurrenez hurren, Barne Produktu Garbiaren gainean % (0,6) eta % 14,7an ezarri zirenak. Erabaki hau berretsi zen Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak 2017ko maiatzaren 17an egindako bileran.

AEFILOko 17. artikuluan xedatutakoari jarraituz, 2018ko apirilean eta urrian Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioak egindako aurrekontu egonkortasuneko, zor publikoko eta gastu arauko helburuen betetze mailari buruzko txostenek adierazten dute EAEk bete dituela 2017ko ekitaldirako ezarritako aurrekontuaren egonkortasunari eta zor publikoari dagozkion helburuak. Hala ere, txosten biek adierazten dute ez dela bete gastuaren araua. Honela, bada, 2018ko urriko txostenean, EAEko Administrazio orokorraren gastu konputagarria % 2,8 hazi da, baina 2017ko ekitaldirako muga % 2,1 zen.

Gastu araua ez betetzearen ondorioz, AEFILOko 21. artikuluan aipatutako Ekonomia eta Finantza Plana prestatu behar izan du EAEk, 2018-2019 aldiari buruzkoa. Erantzukizun Fiskaleko Agintaritzak Independenten Plan horren gaineko txostena egin zuen 2018ko ekainaren 26an eta 2018-2019 aldirako egonkortasun eta zor publikoaren helburuak beteko direla aurreikusten du, nahiz gastuaren araua ez betetzeko arrisku neurritzakoa dagoela ere adierazi duen.



V. 2017KO EKITALDIKO KONTUAK

2017-KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

AURREKONTU ARRUNTA							Euroak, milioikotan
SARRERAK KAPITULUA	HASIER.		B. BETIKO AURREK.	ESKUBIDE AITORTUAK	KOBRTUA	KOBRTU GABEA	
	AURREK.	ALDAK.					
2. Zeharkako zergak	4,2	-	4,2	4,0	2,9	1,1	
3. Tasak eta bestelako sarrerak (A.8).....	74,0	71,4	145,4	178,0	149,9	28,1	
4. Transf. eta diru lag. arruntak (A.9).....	9.180,0	365,8	9.545,8	9.944,3	9.743,0	201,3	
5. Ondare-sarrerak.....	1,4	0,1	1,5	2,2	2,1	0,1	
6. Inbertsio errealen besterentzea	-	-	-	0,2	0,2	-	
7. Kapitalezko diru lag. eta transf. (A.10).....	382,5	16,1	398,6	137,0	109,0	28,0	
8. Finantza-aktiboen gutxitzea (A.11).....	46,1	-	46,1	23,8	15,6	8,2	
9. Finantza-pasiboen gehikuntza (A.15).....	1.371,4	-	1.371,4	975,0	975,0	-	
GUZTIRA	11.059,6	453,4	11.513,0	11.264,5	10.997,7	266,8	

GASTUAK							Euroak, milioikotan
KAPITULUA	HASIER.		B. BETIKO AURREK.	OBLIGAZ. AITORTUAK	ORDAIND. ORDAIND.	ORDAIND. GABE	
	INICIAL	ALDAK.					
1. Langile-gastuak (A.3).....	2.038,8	22,5	2.061,3	2.021,0	2.020,9	0,1	
2. Funtzionamendu gastuak (A.4).....	3.388,5	118,6	3.507,1	3.448,9	3.122,9	326,0	
3. Finantza-gastuak (A.15).....	248,3	(61,4)	186,9	185,4	185,4	-	
4. Transf. eta diru lag. arruntak (A.5).....	3.367,1	233,7	3.600,8	3.509,8	3.293,8	216,0	
6. Inbertsio errealak (A.6).....	502,6	(5,1)	497,5	202,0	147,5	54,5	
7. Kapitalezko diru lag. eta transf. (A.5).....	637,0	95,3	732,3	697,7	479,7	218,0	
8. Finantza-aktiboen gehikuntza (A.7).....	88,9	49,8	138,7	104,9	104,5	0,4	
9. Finantza-pasiboen gutxitzea (A.15).....	788,4	-	788,4	654,0	654,0	-	
GUZTIRA	11.059,6	453,4	11.513,0	10.823,7	10.008,7	815,0	

AURREKONTU ITXIAK (A.12)					Euroak, milioikotan
	ZOR ESKUB./OBLIG.		KOBRTU/ ORDAIND.	ZOR ESKUB./OBLIG.	
	2016-12-31			BALIOGAB.	2017-12-31
Sarrerak.....	1.189,8		391,7	39,1	759,0
Gastuak.....	677,7		639,2	5,5	33,0

KONPROMISO KREDITUAK (A.17)				Euroak, milioikotan
KAPITULUA	HASIERA URTEA			
	AURREKO URT.	2017	GUZTIRA	
Langileria-gastuak.....	-	-	-	
Funtzionamendu gastuak.....	65,6	173,5	239,1	
Transferentzia eta diru-laguntza arruntak.....	98,3	81,2	179,5	
Inbertsio errealak	155,2	37,9	193,1	
Kapitalezko transferentziak eta diru-laguntzak.....	214,8	188,1	402,9	
Finantza-aktiboen gehikuntza	248,6	23,4	272,0	
GUZTIRA	782,5	504,1	1.286,6	



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

2017KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOARI BURUZKO OHARRAK

- 1. oharra.** EAren Administrazioiko diruz lagungarri diren gastuak diru laguntzak ematen diren unean erregistratzen dira, eta aplikatuko zaien aurrekontu erregimena aurre egin beharreko ordainketei edota diru laguntza edo laguntzaren baldintzak egiaz betetzeari dagokionez egokien diren kreditu motaren arabera izango da, ordainketazkoa edo konpromisozkoa, Euskadiko Aurrekontu Erregimenari buruzko Legeak ezarritako irizpideari jarraikiz. Irizpide horren ondorioz, 2017ko abenduaren 31n badira oraindik eskagarriak ez diren ordainketa obligazioak, zeinek 87,6 milioi euroren zenbatekoa egin baitute.
 - 2. oharra.** 2017ko abenduaren 31 arte jasotako funts komunitarioetatik 703,1 milioi euro Europar Batasunak ikuskatu ditzake, eta ezinezkoa da zehaztea finantzatutako proiektuen berrikuspenak diruzaintza geldikinarene gainean izan lezakeen eragina. Nolanahi ere, iragan esperientzia oinarri hartuta, ez dirudi eragin hori adierazgarria izan litekeenik.
 - 3. oharra.** Zorpetze publikoari dagozkion sortutako eta iraungi gabeko interesak (77,3 milioi euro) urteko kontuetan erregistratzen dira eta ondarearen emaitza ekonomikoaren zati dira. Aurrekontuaren gauzatzeak ez du zenbateko hori islatzen, izan ere, interesen gastuak kutxa irizpideari jarraikiz erregistratzen baititu.
 - 4. oharra.** Bizkaiko Garraio Partzuergoaren finantza planak, Bilboko Hiri Trenbidearen inbertsioei buruzkoak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorrek 2018tik 2027ra bitarteko urteetan 329,1 milioi euroren ekarpena egitea aurreikusten du, urte horietako EAren Aurrekontu Orokorretan kontsignatuko direnak, Partzuergoari ekitaldi bakoitzean egin beharreko transferentziari dagokion kopuruan.
-



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ZORPETZEA	Euroak, milioikotan
SALDOA, 2016-12-31n	8.768,4
Zor jaulkitzea (balio nominala)	490,6
Mailegu berrien erabilera (balio nominala)	480,0
Amortizazioa	(654,0)
SALDOA 17.12.31-N (Balio nominala) (A.15)	9.085,0

2017KO EMAITZA, ETA DIRUZAINZAKO GELDIKINA 2017-12-31N	Euroak, milioikotan
Diruzaintza Geldikina 16.12.31n	321,2
2017ko ekitaldiko aurrekontu emaitza.....	407,2
Aurrekontu arruntaren emaitza	440,8
Aurreko ekitaldietako eragiketen emaitza (A.12)	(33,6)
DIRUZAINZAKO GELDIKINA 2017.12.31N	728,4

DIRUZAINZAKO GELDIKINAREN GAUZATZEA 2017-12-31N	Euroak, milioikotan
DIRUZAINZAKO (A.13)	912,5
KOBRATZEKOAK	1.389,8
Indarrean den ekitalditik kobratzeke dauden eskubideak	266,6
Itxitako ekitaldietatik kobratzeke dauden eskubideak	759,1
Zordunen aurrekontuz kanpoko saldoak (A.14)	364,1
ORDAINZAKE	(1.573,9)
Indarrean den ekitaldiko ordaintzeke dauden obligazioak.....	(815,0)
Itxitako ekitaldietako ordaintzeke dauden obligazioak	(33,0)
Hartzekodunen aurrekontuz kanpoko saldoak (A.14)	(725,9)
DIRUZAINZAKO GELDIKINA 2017.12.31N	728,4

DIRUZAINZAKO GELDIKIN ERABILGARRIA 2017-12-31N	Euroak, milioikotan
Diruzaintza Geldikina 2017.12.31n.....	728,4
Eraginpeko geldikina:	
Ikastetxe publikoetarako geldikina.....	(51,0)
Zalantzazko kobrantzako eskubideak	
Bestelako eskubide aitortuak	(39,6)
Diru bilketa, betearazte bidean	(19,4)
Exekutututako abalek eragindako erreklamazioak (A.16)	(29,5)
DIRUZAINZAKO GELDIKIN ERABILGARRIA 2017-12-31N	588,9



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

URTEKO KONTUAK

BALANTZEA		Euroak, milioikotan			
AKTIBOA	2017	2016	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	2017	2016
AKTIBO EZ ARRUNTA	4.443,4	4.471,1	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	(4.018,3)	(4.089,1)
Ibilgetu ez-materiala	52,1	54,1	Sortutako ondarea	(4.229,0)	(4.299,6)
Ondasun ibilgetu materialak	2.736,1	2.750,1	Aurreko ekitaldien emaitzak.....	(4.299,6)	(3.767,0)
Epe luz. finantza inb., taldeko erakundeet... 1.398,2	1.406,8	Ekitaldiko emaitzak	70,6	(532,6)	
Epe luz. finantza inbertsioak	217,6	227,9	Bst. ondare igoerak, emaitz. egozteke	210,7	210,5
Zord. eta kobratz. bst. kontu batzuk epe luz. .	39,4	32,2	PASIBO EZ-ARRUNTA	9.087,0	8.765,7
AKTIBO ARRUNTA	2.881,8	2.457,7	Epe luz. zuzkidurak	34,9	42,3
Izakinak	668,1	717,9	E/luzeko zorrak	9.044,1	8.716,9
Zord. eta kobratz. bst kontu batzuk	1.269,0	1.091,1	Hartzekod. eta ordaintz. bst. Kontu batzuk epe luz.	8,0	6,5
Epe lab. finantza inb., taldeko erakundeetan	22,7	22,9	PASIBO ARRUNTA	2.256,5	2.252,2
Epe lab. finantza inbertsioak	9,5	9,4	E/laburreko zorrak.....	176,4	155,5
Eskud. eta b. aktibo likido baliokide batz. ...	912,5	616,4	Taldeko erakundeekiko zorrak, epe lab. ...	475,8	495,4
			Hartzekod. eta ordaintz. bst kontu batz. .	1.604,3	1.601,3
AKTIBOA, GUZTIRA	7.325,2	6.928,8	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA	7.325,2	6.928,8

ONDAREAREN EMAITZA EKONOMIKOAREN KONTUA	Euroak, milioikotan	
	2017	2016
Zerga sarrerak	19,2	20,4
Jasotako transferentziak eta diru-laguntzak	9.976,9	8.876,9
Salmenta garbiak eta zerbitzu egitea	167,4	522,6
Amaitutako eta fabrikazioan dauden produktuen izakinak gehitzea eta balioaren narriadura	(35,8)	(369,9)
Kudeaketa arrunteko beste sarrera b.	116,8	119,9
Hornidura gehiegizkoak	11,1	29,7
KUDEAKETA ARRUNTEKO SARRERAK GUZTIRA	10.255,6	9.199,6
Langileria-gastuak	(2.020,8)	(1.972,1)
Transferentziak eta emandako diru-laguntzak	(4.216,4)	(3.935,0)
Hornikuntzak	(112,5)	(137,0)
Kudeaketa arrunteko beste gastu b.	(3.439,2)	(3.369,4)
Ibilgetua amortizatzea	(104,5)	(109,9)
KUDEAKETA ARRUNTEKO GASTUAK GUZTIRA	(9.893,4)	(9.523,4)
KUDEAKETA ARRUNTAREN EMAITZA (AURREZKIA EDO AURREZKI-EZA)	362,2	(323,8)
Balio narriadura eta ibilgetu ez finantzarioa		
besterenganatzeagatiko emaitzak eta aktiboak salgai.....	(2,5)	(9,9)
Arruntak ez diren beste kontu sail batz.	2,1	11,4
ERAGIKETA EZ FINANTZARIOEN EMAITZAK	361,8	(322,3)
Sarrera finantzarioak	10,4	43,3
Gastu finantzarioak	(187,8)	(191,1)
Balioaren narriadura, bajak eta finantza-aktibo eta -pasiboen besterentzeak.....	(113,8)	(62,5)
ERAGIKETA FINANTZARIOEN EMAITZAK	(291,2)	(210,3)
EKITALDIAREN EMAITZA GARBIA (AURREZKIA EDO AURREZKI-EZA)	70,6	(532,6)



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ONDARE GARBIKO ALDAKETEN EGOERA

1.- ONDARE GARBIAN ALDAKETEN EGOERA GUZTIRA

Euroak, milioikotan

	SORTUTAKO		GUZTIRA
	ONDAREA	ONDAREAREN BST.IGOERA BATZ.	
ONDARE GARBIA, 2016KO EKITALDIAREN BUKAERAN	(4.299,6)	210,5	(4.089,1)
2017KO EKITALDIKO ONDARE GARBIAREN ALDAKUNTZAK	70,6	0,2	70,8
Ekitaldian aitortutako sarrera eta gastuak	70,6	0,2	70,8
ONDARE GARBIA, 2017KO EKITALDIAREN BUKAERAN	(4.229,0)	210,7	(4.018,3)

2.- AITORTUTAKO SARREREN ETA GASTUEN EGOERA

Euroak, milioikotan

	2017	2016
EKITALDIAREN EMAITZA GARBIA (AURREZKI EZA)	70,6	(532,6)
Ondare garbian jasotako aitortutako sarrera eta gastuak		
Bestelako ondare sarrerak.....	5,6	3,1
Ondare emaitza ekonomikoaren kontura edo kontu sailaren hasierako baliora transferentziak		
Bestelako ondare gehikuntzak	(5,4)	(10,2)
AITORTUTAKO SARRERAK ETA GASTUAK GUZTIRA	70,8	(539,7)



ESKUDIRU FLUXUEN EGOERA	Euroak, milioikotan	
	2017	2016
KUDEAKETA JARDUERETAKO ESKUDIRU FLUXUAK		
Kobrantzak	10.398,4	9.113,9
Zerga sarrerak	19,3	21,6
Jasotako transferentziak eta diru-laguntzak	10.224,4	8.911,1
Salmenta garbiak eta zerbitzu emateak	18,8	15,3
Interes eta dibidendu kobratuak	3,8	34,0
Bestelako kobrantzak	132,1	131,9
Ordainketak	9.797,3	9.527,1
Langileria-gastuak	2.019,1	1.967,1
Transferentziak eta emandako diru-laguntzak	4.077,8	3.832,0
Hornikuntzak	111,0	129,0
Bestelako kudeaketa gastuak	3.387,4	3.383,3
Ordaindutako interesak	183,5	199,5
Beste ordainketa batzuk	18,5	16,2
Aurrekontukoak ez diren beste kobrantza eta ordainketa batzuk	(453,8)	26,4
Kudeaketa jardueretako eskudiru fluxu garbiak	147,3	(386,8)
INBERTSIO JARDUERETAKO ESKUDIRU FLUXUAK		
Kobrantzak	51,3	99,2
Inbertsio errealeen salmenta	1,5	2,1
Finantza-aktiboen salmenta	16,3	68,3
Inbertsio jardueretako beste kobrantza batzuk	33,5	28,8
Ordainketak	204,0	217,2
Inbertsio errealeen erosketa	81,7	97,2
Finantza-aktiboen erosketa	111,4	108,0
Inbertsio jardueretako beste ordainketa batzuk	10,9	12,0
Inbertsio jardueretako eskudiru fluxu garbiak	(152,7)	(118,0)
FINANTZAKETA JARDUERETAKO ESKUDIRU FLUXUAK		
Finantza-pasiboak jaulkitzeagatiko kobrantzak	2.375,0	2.959,3
Obligazioak eta beste balio negoziagarri batzuk	495,0	806,0
Jasotako maileguak	1.880,0	2.153,3
Finantza-pasiboak itzultzeagatiko ordainketak	2.094,6	2.422,3
Obligazioak eta beste balio negoziagarri batzuk	405,1	458,5
Jasotako maileguak	1.689,5	1.963,8
Finantzaketa jardueretako eskudiru fluxu garbiak	280,4	537,0
ERAKUNDE AUTONOMOEKIKO ZORREN ALDAKUNTZA	21,1	20,8
ESKUDIRUAREN GEHIKUNTZA EDO MURRIZKETA GARBIA ETA		
ESKUDIRUAREN BALIOKIDE DIREN AKTIBO LIKIDOAK	296,1	53,0
Eskudirua eta eskudiruaren baliokide diren aktibo likidoak ekit. hasieran	616,4	563,4
Eskudirua eta eskudiruaren baliokide diren aktibo likidoak ekit. amaieran	912,5	616,4

ERANSKINAK

A.1 ARAUDI EZARGARRIA

Hemen jasota daude 2017an EAEren Administrazio orokorraren aurrekontuen ekonomia kudeaketari eta likidazioari eragiten dieten arau nagusiak:

- 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa.
- 8/1996 Legea, 1996ko azaroaren 8koa, Euskal Autonomia Erkidegoko finantzei buruzkoa.
- 1/1997 Legegintzako Dekretua, azaroaren 11koa, 1/1997 Legegintzako Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri-ogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duena.
- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Diru-laguntzei buruzkoa.
- 2/2007 Legegintzako Dekretua, 2007ko azaroaren 6koa, Euskadiko Ondarearen Legearen testu bategina onesten duena.
- 1/2011 Legegintzako Dekretua, maiatzaren 24koa, Euskadiko aurrekontu araubidearen gaitan indarrean dauden legezko xedapenen testu bategina onartu eta EAEren Fundazio eta Partzuergoei ezargarrria zaien aurrekontuko araubidea arautzen duena.
- 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onesten duena.
- 2012ko ekainaren 25eko agindua, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontabilitate Publikoaren Plana onesten duena.
- 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, 2011ko urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onesten duena.
- 2/2017 Legea, apirilaren 11koa, 2017ko ekitaldirako Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituena.
- 2/2017 Legegintzako Dekretua, urriaren 19koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bategina onesten duena.
- 3/2017 Legea, azaroaren 2koa, 2017ko ekitaldirako Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorrak onesteko legea aldatzen duena.

Aurkeztutako kontuetan sartuta daude kontu ematearen prozesua arautzen duen Euskadiko Aurrekontu Araubidearen testu bateginaren legegintzako dekretuko 124. artikuluan zehaztutako informazioa eta egoerak:

- Ekitaldiko emaitzak: aurrekontu arruntaren eta aurreko ekitaldietako eragiketengatiko superabita edo defizita.
- Ekitaldiko diruzaintzako kontua.
- Ekitaldiko likidazioko kontua.
- Programatutako aurrekontu helburuen betetze mailaren oroitidazkia.

Gainera, Jaurlaritzak 2017ko ekitaldiari dagozkion urteko kontuak aurkeztu ditu. Hor sartuta daude balantzea, ondare emaitza ekonomikoaren kontua, ondare garbian egindako aldaketen egoera, eskudiru fluxuen egoera, eta oroitidazkia, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2012ko ekainaren 25eko aginduz onetsitako EAEKPP planean ezarritakoari jarraituz.

A.2 AURREKONTUKO ALDAKETAK

Hona hemen 2017ko ekitaldian egindako aurrekontu-kredituen aldaketak:

GASTUEN AURREKONTUKO KREDITUEN ALDAKETAK					Euroak, milioikotan	
KAPITULUAK	KREDITU OSAGARRIA	GAI- KUNTZAK	_TRANSFERENTZIAK NORAKOA	JATORRIA	ALDAK. GUZT.	
1 Langileria-gastuak	20,4	1,4	53,3	(52,6)	22,5	
2 Funtzionamendu gastuak	14,6	75,0	85,9	(56,8)	118,7	
3 Finantza gastuak	-	-	0,2	(61,6)	(61,4)	
4 Transferentziak eta diru-laguntza arruntak..	5,5	189,0	224,7	(185,4)	233,8	
6 Inbertsio errealak.....	-	5,2	35,0	(45,3)	(5,1)	
7 Kapitalezko transferentz. eta diru-laguntz...	-	95,3	64,9	(64,9)	95,3	
8 Finantza aktiboen igoera	-	47,1	5,3	(2,7)	49,7	
9 Finantza pasiboen gutxitzea.....	-	-	165,6	(165,6)	-	
GUZTIRA	40,5	413,0	634,9	(634,9)	453,5	
%, hasierako aurrekontuaren gainean	% 0,4	% 3,7	% 5,7	(% 5,7)	% 4,1	

EAEren 2017ko Aurrekontu Orokorrak aldatzeko 3/2017 Legeak jasotzen zuen 2012ko aparteko ordainsariaren gainerako zatiaren ordainketa 2017an gauzatuko zela eta horretarako agintzen zen beharrezko ziren kreditu osagarriak finantzatuko zirela ekarpen handiagoetatik eskuratutako sarreren kontura; sarrera horiek 2007tik 2017ko ekitaldietara bitarteko kupo likido eta konpentsazio finantzarioen behin betiko likidaziotik eratorritakoak dira, zeinek aurrekontu egindako zifrak gaintu baitzituzten. 40,5 milioi euroren kreditu gehigarriak txertatu ziren, zeinetatik 38,5 milioi euro aparteko ordainsaria berreskuratzeko balioetsi baitziren, gehi 2 milioi euro gehiago, EAEko sektore publikoko gainerako erakundeentzat beharrezkoa den kreditua kalkulatzeko izan daitezkeen balizko desbideratzei aurre egiteko.

Ekitaldian izandako kreditu gaikuntzak ondorengo sarrera hauei dagozkie:

GAIKUNTZAK	Euroak, milioikotan
Finantza autonomia duten ikastetxeak.....	78,1
Europar Batasuneko sarrerak	51,3
Foru aldundien ekarpenak	280,1
Beste batzuk.....	3,5
GUZTIRA	413,0



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.3 LANGILERIA-GASTUAK

Hauek dira 2016. eta 2017. urteetako plantilla eta gastuak:

	LANGILERIA ETA AITORTUTAKO GASTUAK					Euroak, milioikotan	
	AURREKONTU PLANTILLA		OBLIGAZIO AITORTUAK		%	BARIAZIOA	
	01.01.17	01.01.16	2017	2016			
Goi kargudunak.....	164	147	12,1	10,9	% 11,0		
Behin-behineko langileak	92	72	5,0	3,6	% 38,9		
Funtzionarioak (*).....	26.086	26.013	1.074,2	1.052,2	% 2,1		
Ertzaintza.....	8.000	8.000	314,3	314,0	% 0,1		
Langile lan kontratudun finkoak.....	2.975	2.848	90,1	87,3	% 3,2		
Ordezkoak eta aldi baterako langileak.....			107,7	103,3	% 4,3		
LANGILEAK ETA ORDAINKETAK, GUZTIRA	37.317	37.080	1.603,4	1.571,3	% 2,0		
Kotizazio sozialak.....			402,4	386,5	% 4,1		
Klase pasiboen prestazio sozialak.....			5,0	4,6	% 8,7		
Beste gizarte-gastu batzuk			10,0	9,7	% 3,1		
LANGILERIA GASTUAK, GUZTIRA			2.020,8	1.972,1	% 2,5		

(*) Sartuta daude Hezkuntza Saileko 20.643 funtzionario 2017an; eta 20.770, 2016an.

Ordainsariak

2017rako EAEko Aurrekontu Orokorren Legeko 19. artikuluan ezarrita dago EAEko Administrazio orokorraren zerbitzura diharduten langileen urteko ordainsari osoak % 1 handituko direla, 2016ko ekitaldian finkatutakoan aldean. Ildo berean, aipatu artikuluan ezarrita dago Eusko Jaurlaritzako lehendakariaren, lehendakariordearen, sailburuen, goi karguen eta parekatuen 2017rako ordainsariak igoera bera izango dutela, 2016ko ekitaldian finkatutako ordainsarien aldean.

2017ko ekainaren 6ko eta azaroaren 14ko Jaurlaritzaren Erabakiak aplikatuz, EA Eren Administrazio orokorreko langileei 2012ko abenduko aparteko ordainsariaren ordaintzeke zegoen zatia ordaindu zaie 2017ko ekaineko eta azaroko nominetan; aparteko ordainsari hori kendu baitzitzaien, aurrekontu egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko neurriei buruzko 2012ko uztailaren 13ko Errege Lege Dekretua aplikatuz. Kontzeptu honen izenean ordaindutako kopuruak, hurrenez hurren, 25,9 eta 20,4 milioi eurorenak izan dira.

2017ko lan eskaintza publikoak

Herri Administrazio eta Justiziako sailburuaren 2017ko otsailaren 13ko aginduz, 2017rako EAEko Hezkuntza Administrazioiko lan eskaintza publikoa onartu ze eta maisu-maistren kidegoko 740 plaza eskaini ziren. Hautaprobetarako deialdia Hezkuntzako sailburuaren 2017ko otsailaren 21eko aginduz onartu zen. Langile berriak (732 plaza) 2017ko irailean hasi ziren lanean, hautatze prozesua bukatu eta praktiketako funtzionario izendatu ostean.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Txanda kontratuarekin batera hartutako erretiro partzialak

2017an, 60 urtez gorakoentzat bereizitako erretiro partziala hartu dute 93 langilek, eta beste horrenbeste txanda-kontratu izenpetu dira. Egin diren erretiro partzial guztietan, langile erretiratuen dedikazioa % 25ekoa da, eta gainerako lanaldia txandako langile berriek bete dute.

Kargutik kentzeagatiko kalte ordainak

2017an, 108.489 euroren zenbatekoa ordaindu zaie 19 pertsonari, Jaurlearitzako kideak, goi karguak eta Administrazio orokorreko konfiantzako langileak kargutik kentzeagatik. Onuradun bakoitzari ordaindutako kalte-ordaina ordainsariaren hileko baten baliokide da, Goi Karguen Ordainsariei buruzko 1988ko urriaren 28ko 14/1988 Legeko 5. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Aldi baterako prestazio ekonomikoa

Diru laguntza horien onuradunek zuzeneko diru-laguntzak jaso zituzten aurreko bi ekitaldietakoren batean, kontzeptu berengatik. (A1)

DIRU-LAGUNTZA IZENDUNAK	Euroak, milioikotan		
	D FASEA 2017	KONPROMISO KREDITUA	AKATSA
KONTZEPTUA			
Bilboko Portuko Agintaritzaren ARASUR Plataformako Trenbide Terminala	2,3	-	
Ikerbasque Fundazioa Jarduera finantzatzea.....	12,4	-	
Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren Jarduera finantzatzea	1,3	-	
Donostiako Nazioarteko Zinemaldia, SA Urteko programa 2017	1,0	-	
Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa, SA Ustiapen-aurrekontua 2017	1,6	-	
GUZTIRA	18,6	-	



KONTZEPTUA	Euroak, milioikotan	
	DEIALDIAREN ZENBATEKOA	AKATSA
DIRU-LAGUNTZEI BURUZKO ARAUEN AZTERKETA		
GOBERNANTZA PUBLIKOA ETA AUTOGOBERNUA		
1. Banda zabaleko sareak hedatzeko laguntza-programa.....	10,0	B2, 3, 4
2. Nazioartekotze-beken BEINT programa.....	-	
EKONOMIA GARAPENA ETA AZPIEGITURAK		
3. Nekazaritza, elikadura eta basogintza sektoreko prozesuetan berrikuntzari laguntzak.....	1,7	B4, 5
4. Euskal Autonomia Erkidegoko arrantzu eta arrainen sektoreari laguntzak	9,9	B5, 6
5. «Basque Label Harategiak» marka berriari atxikitzen zaizkion ohiko harategiei "minimis" erregimenera bildutako laguntzak.	0,5	B5
ENPLEGUA ETA GIZARTE POLITIKAK		
6. Euskal Herrian esku-hartze sozialaren esparruan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko diru-laguntzak	0,5	B4, 7
INGURUMENA, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA		
7. Hirigintzan genero ikuspegia barneratzeko diru-laguntzak	0,2	B1, 4, 6
HEZKUNTZA		
8. Aniztasuna babesteko programa bereziak.....	0,4	B1, 4
OSASUNA		
9. Medikuntza-sendabideetara atxikitzeko laguntzak	6,0	B4
TURISMOA, MERKATARITZA ETA KONTSUMOA		
10. Merkataritzako banaketa kudeatzeko teknikarien prestakuntzarako bekak	0,5	B4, 5
11. Txikizkako merkataritza sustatzeko «10+ Merkataritza Bonua».....	2,5	B1, 4
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA		
12. Komikiak, eleberrri grafikoak edo liburu ilustratuak sortzea	0,1	B4

KONTZEPTUA	Euroak, milioikotan		
	D FASEA 2017	KONPROMISO KREDITUA	AKATSA
Euskal Autonomia Erkidegoko arrantzu eta arrainen sektoreari laguntzak	5,3	3,5	
Txikizkako merkataritza sustatzeko «10+ Merkataritza Bonua».....	2,5	-	
GUZTIRA	7,8	3,5	

AKATSAK	Euroak, milioikotan	
	KOPUR.	EMANDAKO ZENBATEKOA
A1. Onuradunek beste diru-laguntza bat jaso dute helburu bererako aurreko ekitaldietan	12	2,9
A2. Lankidetzaren hitzarmenak ez du finantzaketa-bermearen klausularik jasotzen	1	27,9
A3. Ez da bateragarritasun-muga bete dela egiaztatzeko prozedurarik finkatzen	1	1,0
A4. Diruz lagundutako jarduerarik gehienak deialdi orokorretan jaso ohi dira	2	4,3
B1. Lerroak ez du onartutako plan estrategiko bat, ekintzekin eta adierazleekin	3	3,1
B2. Balorazio-irizpideak orokorrak dira	1	10,0
B3. Oinarriko alderdiak zehaztu gabe daude, laguntzaren zenbatekoa esaterako	1	10,0
B4. Oroitidazkiek ez daukate beren eraginkortasuna ebaluatzeko bidea emango duten adierazleak ..	9	21,9
B5. Ez dira laguntzen emakida-ebazpenak argitara eman	4	12,6
B6. Dekretu arautzaileak ez du birkontratitze-araurik ez diru-laguntza gastuen araurik finkatzen.....	2	10,1
B7. Ez dira justifikatu diru-laguntza lerroa abiaraztea eragin zuten arrazoiak	1	0,5

A.20 KONTABILITATE PUBLIKOA

AKTIBO EZ ARRUNTA

Honako hauek dira aktibo ez-arruntaren xehetasunak, 2017ko abenduaren 31n erregistratuak:

	Euroak, milioikotan
Ibilgetu ez-materiala	52,1
Administrazioko emakidak	2,2
Aplikazio informatikoak	29,5
Jabetza industriala eta intelektuala.....	1,4
Erabilera-lagapenak	15,2
Ibilgetze immaterialetarako aurrerakinak.....	3,8
Ondasun ibilgetu materialak	2.736,1
Lursailak	678,0
Eraikuntzak.....	1.728,3
Azpiegiturak	139,2
Ondare historikoko ondasunak	4,3
Bestelako ibilgetu materiala	98,5
Abian dagoen ibilgetua eta aurrerakinak.....	87,8
Epe luz. finantza inb., taldeko entitate, talde aniztun eta elkartuetan	1.398,2
Epe luz. finantza inbertsioak, ondareko tresnetan	1.336,7
Taldeko erakundeetarako, talde aniztunetarako eta elkartuetarako kredituak	27,6
Bestelako inbertsioak	33,9
Epe luz. finantza inbertsioak	217,6
Salmentarako erabilgarri dauden finantza-aktiboak.....	44,5
Epe luz. kredituak	158,3
Epe luz. eraturako gordailuak	14,8
Zord. eta kobratz. bst. kontu batzuk epe luz.	39,4
Zordunak epe luz.....	39,4
GUZTIRA	4.443,4

Hauek izan dira aktibo ez-arrunteko kontuen mugimenduak:

	Euroak, milioikotan				
ELEMENTUA	SALDOA 17.01.01	SARRERAK/ (ZUZKIDURA)	BAJAK	ESKUALDAK.	SALDOA 17.12.31
Ibilgetu ez-materiala	144,9	14,5	(12,2)	-	147,2
Ibilgetu ukiezinaren amortizazio metatua.....	(90,8)	(16,6)	12,3	-	(95,1)
Ondasun ibilgetu materialak	3.877,4	81,5	(35,7)	-	3.923,2
Ibilgetu materialaren amortizazio metatua	(1.127,3)	(87,9)	28,2	-	(1.187,0)
Taldeko erakundeetan epe luz. finantza inbertsioak	1.534,9	87,0	(64,3)	-	1.557,6
Taldeko erakundeetan epe luz. finantza inberts. narriadura met.	(128,1)	(31,7)	0,3	-	(159,5)
Epe luz. finantza inbertsioak	234,9	36,0	(49,6)	0,9	222,2
Beste finantza inbertsio batzuk	14,8	-	-	-	14,8
Epe luz. finantza inbertsioen narriadura metatua	(21,8)	(13,9)	16,3	-	(19,4)
Zord. eta kobratz. bst. kontu batzuk epe luz.....	32,2	27,7	(20,5)	-	39,4
GUZTIRA	4.471,1	96,6	(125,2)	0,9	4.443,4



ONDARE EMAITZA EKONOMIKOAREN ETA AURREKONTU EMAITZAREN ARTEKO BERDINKATZEA

Bi emaitzen arteko berdinkatzea honako hau da:

	Euroak, milioikotan
2017KO EKITALDIKO EMAITZA GARBIA	70,6
ONDAREAREN EMAITZA EKONOMIKOAREN PARTE EZ DIREN ERAGIKETAK	
Ken: Aurrekontu gastuak eta ordaintzeke zeuden hondarren deuseztatzeak	929,3
Inbertsio erreal propioak (A.6)	88,6
Finantza-aktiboen gehikuntza (A.7)	104,9
Zuzkiduretan sartutako aurrekontu gastuak 16-12-31	0,5
Zor publikoaren eta maileguren gutxitzeak (A.15)	653,7
Maileguren eta zorraren interesak, 2016an sortuak eta 2017an ordainduak	81,3
Beste kontzeptu batzuk	0,3
Gehi: Aurrekontu sarrerak eta kobratzeke zeuden hondarren deuseztatzeak	1.101,9
lbilgetu materialaren eragiketengatik.....	(0,1)
Finantza-aktiboen gutxitzea (A.11)	23,8
Eskubideak baliogabetzea	(5,7)
Estatuaren kapitalezko diru laguntzak: Euskal Y-a (A.10)	106,0
Euskal Yari emandako diru-laguntzen sarreraren hondakinak baliogabetzea	(0,6)
Jasotako beste kapitalezko diru-laguntza batzuk	3,5
Obligazioen eta maileguren jaulkipenak (A.15)	975,0
AURREKONTU EMAITZAREN PARTE EZ DIREN ERAGIKETAK	
Gehi: Sartu gabeko gastuak	295,8
Transferentziak eta emandako diru-laguntzak	13,9
Kudeaketa arrunteko beste gastu b.	1,4
lbilgetuaren amortizazioa (ikus V. atala).....	104,5
lbilgetu ez finantzariotik datozen galerak	3,0
Arruntak ez diren beste kontu sail batz.	4,2
Maileguren eta zorraren interesak, 2017an sortuak eta ordaintzeke daudenak (A.15).....	77,3
Sortutako beste finantza gastu batzuk.....	6,4
Balioaren narriadura, bajak eta finantza-aktibo eta -pasiboen besterentzeak	85,1
Ken: Sartu gabeko diru sarrerak	131,8
lbilgetu ez finantzariorako diru-laguntzen egozpena	5,5
Beste erakunde batzuentzat eraiki edo erositako aktiboak	112,5
Hornidura gehiegizkoak (ikus V. atala).....	11,1
Arruntak ez diren beste kontu sail batz.	0,6
Sarrera finantzarioak	2,1
2017KO EKITALDIKO AURREKONTU SUPERABITA	407,2



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.21 LURRALDEKA BEREIZITAKO GASTUAK ETA SARRERAK

Administrazioak bere aurrekontuak apailatzen ditu, eta haien egikaritzea kontabilizatzen du gastuak eta sarrerak lurraldeka sailkatuta, baina ez ditu onartzen, ez eta ekitaldia likidatzeko bere kontuan haien egikaritzeari buruzko informaziorik aurkezten ere.

Jarraian aztertzen da 2017ko ekitaldiko gastuen eta sarreraren zertarakoa, eta 2014, 2015 eta 2016ko ekitaldiekin konparatzen da.

Aurrekontuen banaketa

2014, 2015, 2016 eta 2017rako onartutako aurrekontuaren banaketa, bai eta lurralde bakoitzak EAERI zerga itunduen kontzeptuan duen koefiziente horizontala ere, 2017ko ekitaldian, honako hau da:

AURREKONTUKO GASTUEN ETA SARREREN BANAKETA, LURRALDEKA

	KOEFIZIENTE HORIZONTALA	GASTUEN %				SARREREN %			
		2014	2015	2016	2017	2014	2015	2016	2017
Araba	% 16,45	22,7	22,7	25,3	22,9	13,1	13,7	13,7	13,6
Gipuzkoa	% 32,89	25,3	24,6	23,1	24,4	27,2	27,5	27,8	27,4
Bizkaia	% 50,66	39,9	39,4	36,6	39,5	42,0	42,0	42,7	42,1
Lurraldeka bereizi gabe	-	12,1	13,3	15,0	13,2	17,7	16,8	15,8	16,9

Gastuak

Hauek dira gastuen xehetasunak eta aurreko hirurtekoarekiko konparazioa:

GASTUAK, LURRALDEKA BEREIZITA

Euroak, milioikotan

	2017			OBLIGAZIO AITORTUAK			BATEZ BESTEKOA 2014-2017	%
	AZKEN AURREKON.	OBLIGAZ. AITORT.	% GASTUA GUZTIRA	2014	2015	2016		
Araba	2.715,7	2.554,0	% 23,6	2.356,3	2.410,6	2.518,3	2.459,8	% 23,8
Gipuzkoa	2.790,8	2.579,5	% 23,8	2.545,7	2.441,9	2.522,9	2.522,6	% 24,4
Bizkaia	4.485,1	4.471,9	% 41,3	4.122,3	4.191,0	4.325,0	4.277,5	% 41,3
Lurrald. bereizi gabe ...	1.521,4	1.218,3	% 11,3	1.029,3	1.118,0	998,5	1.091,0	% 10,5
GUZTIRA	11.513,0	10.823,7	% 100,0	10.053,6	10.161,5	10.364,7	10.350,9	% 100,0



Hauek dira gastuaren xehetasunak, kapituluak aintzat hartuta:

GASTUAK, KAPITULUEN ARABERA	Euroak, milioikotan			
	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA	LURR. GABE
Langileria-gastuak	455,9	611,4	948,7	5,0
Funtzionamendu gastuak	712,3	977,8	1.705,4	53,4
Gastu finantzarioak	-	-	0,1	185,3
Transferentzia eta diru-laguntza arruntak	1.206,2	639,0	1.451,1	213,5
Inbertsio errealak	18,7	132,8	46,8	3,7
Kapitalezko transferentziak eta diru-laguntzak	150,5	209,2	280,7	57,3
Finantza-aktiboen gehikuntza	10,4	9,3	39,1	46,1
Finantza-pasiboen gutxitzea	-	-	-	654,0
GUZTIRA	2.554,0	2.579,5	4.471,9	1.218,3

Gastuak kontabilitatean egozteko irizpideak

Aurreko datuak egoki irakurtzeko, aintzat hartu behar dira gastua kontabilitatean lurraldearen arabera sailkatzeko ondorengo irizpide hauek, Eusko Jaurlaritzak erabiliak:

KAPITULUA	GASTUA EGOZTEKO IRIZPIDEA
Langileria-gastuak	Langilea atxikita duen zentroaren helbidea
Funtzionamendu gastuak	Gastua egiten den zentroaren kokalekua
Gastu finantzarioak	Ez da lurraldearen arabera sailkatzen zor publikoko gastua
Eragiketa arruntetarako transferentziak eta diru laguntzak	Oro har, onuradunaren helbidean Ez da lurraldearen arabera sailkatzen, baldin erakundeak ez badu EAEn lan egiten
Inbertsio errealak	Inbertsioa egiten den tokian; ez dira lurraldekotuko inbertsio immaterialak
Kapitaleko transf. eta diru-lag., finantza aktiboen bariazioa	Inbertsioa egiten den tokian
Finantza-pasiboen bariazioa	Zor publikoa ez da lurraldearen arabera sailkatzen

Inbertsioa, lurraldeka

2014, 2015, 2016 eta 2017an egindako inbertsioak (6. eta 7. kapituluak) ehunekotan duen banaketa honako hau da:

	INBERTSIOA, EHUNEKOTAN			
	2014	2015	2016	2017
Araba	14,5	14,5	13,7	18,8
Gipuzkoa	46,3	39,8	41,5	38,0
Bizkaia	34,7	40,7	39,6	36,4
Lurraldeka bereizi gabe	4,5	5,0	5,2	6,8



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Jarraian, inbertsio nagusiak azaltzen dira, lurralde historikoka:

Araba: Inbertsio nagusiak osasungintza (Osakidetza) finantzatu eta kontratatzeko egin dira, lurraldean egindako inbertsio osoaren % 32,3 baitira. Hurrena, etxebizitza-programan egindako inbertsioak, % 19,1 egin dutenak, eta nekazaritza proiektuetarako diru-laguntzak, % 8,7.

Gipuzkoa: ETSBn egindako inbertsioa % 31,0 da; trenbideko garraioaren azpiegitura eta kudeaketako inbertsioak, % 23,2; eta teknologia garapena sostengatzeko egindakoak % 19,6..

Bizkaia: Trenbideko garraioaren azpiegitura eta kudeaketara bideratutako inbertsioak % 27,5 dira (gehienbat ETSri eginiko transferentziak eta Bilbao Hiri Trenbidearen obrak finantzatzea); teknologia garapena sostengatzekoak % 20,4 dira eta etxebizitzarakoak, % 10,3.

Honako taulan daude jasota inbertsio handieneko programak:

EGITARAUA	Euroak, milioikotan									
	ARABA	%	BIZKAIA	%	GIPUZKOA	%	LURR. GABE	%	GUZTIRA	%
Trenb. garraioaren azpieg. eta kud....	13,9	% 7,6	79,3	% 43,3	89,9	% 49,1	-	-	183,1	% 100,0
Tecnologia	12,8	% 8,7	67,2	% 45,8	66,8	% 45,5	-	-	146,8	% 100,0
EHTSB.....	-	-	106,0	% 100,0	-	-	-	-	106,0	% 100,0
Etxebizitza	32,3	% 32,3	20,1	% 20,1	33,8	% 33,7	13,9	% 13,9	100,1	% 100,0
Osasun finantz. eta kontratazioa.....	54,6	% 92,4	0,1	% 0,2	4,4	% 7,4	-	-	59,1	% 100,0
Garapenerako lankidetz.....	-	-	-	-	-	-	35,3	% 100,0	35,3	% 100,0
Bigarren hezkuntza eta LH.....	5,5	% 18,3	11,8	% 39,2	12,8	% 42,5	-	-	30,1	% 100,0
Plangintza eta admin. hidraulikoa	2,9	% 11,7	10,1	% 40,7	11,1	% 44,8	0,7	% 2,8	24,8	% 100,0
Nekaz. eta landa- eta kostal.-garap.....	14,8	% 60,2	4,3	% 17,5	5,5	% 22,3	-	-	24,6	% 100,0
Haur eta lehen hezkuntza	2,3	% 12,2	4,9	% 25,9	11,7	% 61,9	-	-	18,9	% 100,0
Ikerketa	-	-	5,5	% 29,7	13,0	% 70,3	-	-	18,5	% 100,0
Unibertsitateko irakaskuntza	-	-	3,4	% 19,8	13,8	% 80,2	-	-	17,2	% 100,0
Indust. garapena eta ekintz. laguntza	-	-	3,0	% 19,9	12,1	% 80,1	-	-	15,1	% 100,0
Zerbitzuko Ertzaintza	1,2	% 9,5	0,5	% 4,0	10,8	% 85,7	0,1	% 0,8	12,6	% 100,0
Erakunde harremanak.....	6,7	% 59,3	-	-	4,6	% 40,7	-	-	11,3	% 100,0

Lurraldeka bereizi gabeko etxebizitza-gastuak nagusiki Araba eta Gipuzkoan 10,1 milioi euroan erositako etxebizitza sozialei dagozkie eta norbanakoei interes-puntuen diru-laguntza bidez emandako 3,1 milioi euroren laguntzei.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

“Trenbideko garraioaren azpiegitura eta kudeaketa” programan honako hau erregistratu da: Bizkaiko Garraio Partzuergoari emandako kapitaleko diru-laguntza, Bilbao Hiri Trenbidea finantzatzeko, 40 milioi euro; ETSrako diru-laguntzak, guztira 45 milioi euro (1,3 milioi Araban, lurraldearen arabera sailkatuak; 18,8 milioi Gipuzkoan, lurraldearen arabera sailkatuak eta 24,8 milioi euro Bizkaian); eta Eusko Trenbideak sozietate anonimoarentzako diru laguntzak, guztira 39,8 milioi euro, hiru lurraldeetan inbertsioak finantzatzeko (1 milioi Arabarako, 14,1 milioi Gipuzkoarako eta 24,7 milioi Bizkairako).

«Garapenerako lankidetzeta» programan kontabilizatutako inbertsio osoa, 35,3 milioi euro, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari emandako kapitalezko diru laguntzari dagokio.

Uraren Euskal Agentziarentzako kapital eragiketetarako diru-laguntza «Plangintza eta administrazio hidraulikoa» programan erregistratu da, 24,8 milioi eurekin.

Sarrerak

Hona hemen sarreraren xehakapena:

		2017			ESKUBIDE AITORTUAK			BATEZ BEST	
	AZKEN. AURREK.	ESKUBIDE AITORT.	% ESKUB. GUZTIRA	2014	2015	2016	2014-2017	%	
Araba	1.572,5	1.643,6	% 14,6	1.358,6	1.417,4	1.476,3	1.474,0	% 14,1	
Gipuzkoa	3.158,6	3.303,3	% 29,3	2.806,9	2.858,6	2.949,5	2.979,6	% 28,4	
Bizkaia	4.860,6	5.085,7	% 45,2	4.334,8	4.420,0	4.585,9	4.606,6	% 44,0	
Lurrald. berezi gabe	1.921,4	1.231,9	% 10,9	1.607,2	1.406,4	1.394,6	1.410,0	% 13,5	
GUZTIRA	11.513,1	11.264,5	% 100,0	10.107,5	10.102,4	10.406,3	10.470,2	% 100,0	

Lurraldearen arabera sailkatu gabeko sarrerak, funtsean, zor publikoari dagozkie.





Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN 2017EKO EKITALDIKO FISKALIZAZIOAREN EMAITZEI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK

I. SARRERA

Herri Kontuen Euskal Epaitegiari buruzko otsailaren 5eko 1/1988 Legearen 13. artikuluan xedatutakoa betez, agiri honetan aurkezten dira organo kudeatzaile bakoitzak egin dituen alegazioak eta justifikazioak, eta Kontrol Ekonomikoaren Bulegoak zentralizatu dituenak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren Kontuaren fiskalizazioaren emaitzei dagokienez (2017ko ekitaldikoak).

II. IRITZIA

II.1 LEGEZKOTASUNA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

II.1.1 PREMIAZKO PROZEDURA

«Premiazko prozeduraren bitartez izapidetu zen 33. espedientea (6 milioi euroko esleipena), baina salbuespenezko prozedura mota horri buruzko SPKLTBaren 113.1 artikuluan zehazten diren kasuetako bat ere izan gabe».

ALEGAZIOA

Ertzaintzaren burutzaren memoriaren arabera (2017ko azaroaren 22koa; espedientean dago jasota), salbuespenezko kontratazio-araubidearen eskabidea «larritasun- eta berehalakotasun-printzipioetara zeharo doituta dago, [...] pertsonen eta ondasunen osotasunarentzako berehalako arrisku larri bati aurre egin ahal izateko». Gainera, dioenez, «egungo egoera soziopolitikoak kontuan hartuta, atentatu terrorista bat pairatzeko arrisku maila handiagoa den susmoa egon daiteke; izan ere, islamiar estatua porrot handiak ari da izaten Sirian eta Iraken, eta haren jarraitzaileak beste lurralde batzuetara lekualdatu dira, are sorburua (asko eta asko Europara) itzuli ere. ... Islamiar estatuaren helburu lehenetsia Europan ahalik eta baja zibil gehienak eragitea da; horren erakusle dira Europako hainbat hiritan gertatu diren eraso ugariak, 2015ean, Parisen Charlie Hebdo astekariarekin hasi eta Bartzelonako Ramblatan 2017ko abuztuaren 17an egindakora arte».

Gure iritzian, kontsiderazio horiek elementu nahikoak izan dira egin den kontratazio-prozeduraren erabakia hartzeko.

II.1.2 PUBLIKOTASUNIK GABEKO PROZEDURA NEGOZIATUA

«Publikotasunik gabeko prozedura negoziatuaren erabilerari dagokionez, 780.000 milioi euroren truke esleitutako 35. espedientearen lizitaziorako, lehiaren salbuespena ez da behar bezain beste arrazoitu, SPKLTBko 173.c) eta 170.d) artikuluen arabera».

ALEGAZIOA

Kudeaketa ekonomiko eta Baliabide orokorren Zuzendaritzako Baliabide teknikoen eta Zerbitzuen Sailaren 2016ko azaroaren 14ko memoriak honakoa dio:

«Kontratazio-espeditente honekin hornitu beharreko azalak, barneko bala-panelak kanpoan eramateko baliagarriak izateaz gain, Segurtasun Sailak hala eskatzen duten agenteei beren eginkizunetan balen inpaktuaren aurren babes egokia izateko ematen dien balen aurkako babes-ekipoko elementu zatiezina dira.

Bala-panelaren fabrikatzaileak baino hobeto ezin dezake inork bermatu panela/azala multzoak behar den babesa ematea agenteari gure kaleetan gaur egun dauden arriskuen aurrean; alegia, beste hornitzaile baten elementuak kontrako eragina izan dezake, eta bala-panelak eskaintzen duen babesa gutxiagotu.

Gainera, azalok balen aurkako babesa dute sorbaldetan, barne-txalekoa kanpoaldean erabili nahi denean, segurtasun handiagoz erabiltzeko; izan ere, txalekoak ez du sorbalda-babesik. Hots, panela eta azala multzo zatiezina dira, erabiltzailearen segurtasuna bermatzeko; izan ere, txalekoak eta azalak balen aurreko babes maila bera eman behar dute, hala materialetan nola trauma-balioetan. Era berean, erabiltzailearen segurtasuna bermatzeko, oso garrantzitsua da azala eta barneko bala-panela zehazki bat etortzea, panelok posizio egokian gera daitezen, hil ala bizikoak diren atalak behar bezala babestearren.

Horregatik guztiagatik, azalak bala-panelen fabrikatzaile berak egin beharko ditu, eta, segurtasuneko materiala dela kontuan hartuta, dagokion kontratazio-espeditentea lehiatik eta publikotasunetik salbuesteko eskabidea egiten da, eta bala-panelen enpresa fabrikatzailearekin prozedura negoziatu bidez kudeatzea...».

Horrenbestez, gure iritzian, kontsiderazio horiek elementu nahikoak izan dira egin den kontratazio-prozeduraren erabakia hartzeko.

III. BARNE-KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA-PROZEDUREI BURUZKO OHARTARAZPENAK

III.3 DIRULAGUNTZAK

ZUZENeko DIRULAGUNTZAK

3.3.1

Elkargi - Probisio Teknikoko Funtsa

2017ko aurrekontuetan 552.000 euroko zuzkidura izenduna dago jasota –«Elkargi EBS, Probisio teknikoko funtsaren dirulaguntza. Handitu daiteke». 001. kontu-saila, 751.02 azpikontzeptua, 6311 programa, 06. saila (Ogasuna eta Ekonomia)–, baina zenbateko hori gutxi gorabeherakoa da; izan ere, dirulaguntzaren behin betiko zenbatekoa (Elkargik 2016an formalizatutako abalen zenbatekoaren % 1, alegia 1.000.000 €) 2016ko ekitaldia itxi ondoren ezagutu da. Horrenbestez, beharrezkoa da zuzeneko dirulaguntza bat izapidetzea aurrekontu-sail horren kargura, handitu zitekeena jada adierazita zegoena.



Oriamendi 2010 SL. Erremonteari eustea

2016ko zuzeneko dirulaguntzaren xedea erakundearen jarduketa ohikoa izan zen; 2017koa, berriz, artisau profesionaleri ordaintzera bideratu zen, pilotan jokatzeko xixterak eta pilotak egiteko (43.000 euro), eta erremonte-eskolari eustera (7.000 euro). Onuradunak bidalitako aurrekontuak atxiki dira.

Tecnalia Research – Innovation Fundazioa KSI ekintzak sustatzea

2016an, 35.000 euroko dirulaguntza eman zen EAEko Kultura eta Sorkuntza Industrien sektorearen garapen- eta berrikuntza-jarduketak sustatzeko; 2017an ordea, 245.000 eurokoa, baina Kultura eta Sorkuntza Industrietan berrikuntza sustatzeko eta industrietara teknologia transferitzeko.

Hala, 2016an, dirulaguntza EAEko KSI sektoreetako I+G+Bko proiektuak eta ildoak identifikatzera bideratu zen (mapeoak); teknologiak eta berrikuntzak eskaintzen dizkien aukerak erakutsi zitzaizkien (tailerrak eta sentsibilizazio-jardunaldiak) eta, azkenik, sektorean ezartzeko berrikuntzako planak zehaztu ziren. 2017an, EAEko KSiren esparruko enpresentzako KSI BERRITZAILE programaren barnean, transferentzia teknologikoa egitera bideratu zen dirulaguntza, proiektu berrientzako aukera-eremuak sortu eta garatzeko.

Bilboko Arte Ederren Museoa Fundazioa. Berritze-lanak

2016an 33.720 euroko dirulaguntza eman zen, eta Arriaga plazako ur-filtrazioek museoa eragindako hezetan arazoak konpontzera bideratu zen; 2017an, aldiz, 130.521 euroko dirulaguntza eman zen, Chillida plaza eta eraikin zaharreko erakusketa-aretoak berritzeko.

3.3.2

Elkargi - Probisio teknikoko funtsa

Kontuan hartu behar da dirulaguntza horren emakida egituratzen dela ELKARGI EBSrekin lankidetzaren hitzarmen bat sinatuta (aldean konpromisoak jasota), helburu jakin eta espezifikoko baterako (probisio teknikoaren funtsa sendotzea). Hala, erakunde horrek EAEko ETEei eta autonomoei abalake ematea sustatuko da.

Auzoak birgaitzeko dirulaguntzak

«Auzo jakin batzuk birgaitzeko emandako bi dirulaguntza aurrekontuaren % 15 baino gutxiago hartzen zuten jarduketa bereziak finantzatzera bideratu dira (4,3 milioi euro), baita Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2016ko abenduaren 28ko Aginduan xedatutako beste batzuetara ere. Zuzeneko dirulaguntzak jarduketa berezi horietarako bakarrik ematea gomendatzen dugu, eta gainerakoak izaera orokorreko deialdietara».



ALEGAZIOA

Laguntza-deialdiaren (2016ko abenduaren 28ko Aginduak arautzen duenaren) helburuak eta laguntza mailak Donostiako eta Eibarko udalek ematen dituzten zuzeneko dirulaguntzetakoez bestelakoak dira, Txomin Enea eta Txonta auzoetan, hurrenez hurren.

Hala, bi auzoetako biztanleen batez besteko errenta 14.000 euro ingurukoa da; hau da, ezinezkoa zaie aipatu deialdi arruntean parte hartzea.

Donostiako eta Eibarko udalak hirigintza-antolamendua aldatzeko eta birgaitzeko eragiketak dituzte abian jarrita Txomin Enea eta Txonta auzoetan, hurrenez hurren. Auzo hauen bereizgarria egoera txarra izan da, hala segurtasunaren aldetik (Txontan, industria-eta bizitegi-erabilerak eremu berean egoteagatik; Txomin Enean, Urumearen uholde-arriskuagatik) nola gizarte-ikuspegiaren, bizigarritasunaren, irisgarritasunaren eta energia-efizientziaren aldetatik; horren adibide da egoera zaurgarrian dauden auzoen inbentarioan «Egoera oso zaurgarrian» multzoan sartuta egotea bi-biak.

Batean zein bestean lan handia egiten ari dira, erakundearteko lankidetzaren bidetik, auzook «hiri berdea» edo «ekoauzoa» denaren eredu izan daitezten. Horretarako, energia-efizientziako, energia berriztagarrien garapeneko, karbono gutxiko mugikortasuneko eta azpiegitura adimentsuaren arloko neurriak sustatuko dira, guztiak ere lagungarriak baitira auzoko bizi-kalitatea modu jasangarrian hobetzeko.

Egoera zaurgarriak dauden auzoak hiri berdearen edo ekoauzoaren eredu bihurtzeko, hauek dira ardatzak:

- Eraikinak birgaitzea, energia-efizientziako eta irisgarritasuneko irizpideen arabera.
- Hiri-berroneratzea, ikuspegi sozialarekin eta ingurumen-jasangarritasunaren arabera, ikuspegi integral batean oinarrituta.
- Auzotarren parte-hartzea.

3.3.3 LEHIAREN MENDEKO DIRULAGUNTZAK

BANDA ZABALEKO SAREAK HEDATZEKO LAGUNTZA-PROGRAMA (GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA)

B2 gabezia

Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 17.3 artikulua arabera, dirulaguntzak emateko oinarrien araudian zehaztuta egon beharko dira gutxienez «dirulaguntza emateko irizpideak eta, hala dagokienean, haztapenak». Esaterako, banda zabaleko sareak hedatzeko laguntza-programen oinarri arautzaileetatik hamabigarrenean bost puntuazio-irizpide zehaztu dira, zein bere haztapenarekin. Gainera, lehen irizpidean, dagozkion puntuazio emateko aplikatuko den formula adierazi da; gainerakoetan, irizpide bakoitzaren balorazioan kontuan hartuko diren azpi-irizpideak zehaztu dira. Hala, irizpide bakoitzaren puntuazioan kontuan hartuko diren elementu guztiak errazago ulertu ahal izango dira. Horrenbestez, ez da hauteman 17.3 artikuluan ebaluazio-irizpideei buruz xedatzen dena urratu denik.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

B3 gabezia

Dirulaguntzaren zenbatekoari dagokionez, Dirulaguntzen Lege Orokorraren 17.3 artikulua araberaz, gutxienez «dirulaguntzaren zenbateko banakatu edo zenbatekoa zehazteko irizpideak» zehaztu behar dira. Esaterako, deialdiaren oinarrietatik hirugarrenak laguntzaren zenbatekoa adierazten du, 10.000.000 euro, eta hiru urteko kuota ezartzen ditu (2017ko ekitaldian, 1.500.000 euro; 2018ko ekitaldian, 4.505.000 euro; eta 2019ko ekitaldian, 3.995.000 euro); beraz, zenbatekoa behar bezala zehaztu eta banakatu da.

Bestalde, EONALTBaren 51.1 artikulua dagokionez, horren apartatuak aztertu dira eta ez da hauteman deialdiaren oinarriek urratzen dituztenik.

Genero-ikuspegia hirigintza-arloan txertatzeko dirulaguntzak (Ingurumen, Lurralde-Plangintza eta Etxebizitza saila).

B4 gabezia

Dirulaguntzon lehen deialdia 2017an egin zen; beraz, ezin izan zen sartu efikazia eta efizientzia neurtu ahal izateko adierazleen aurrekontu-memoria.

III.4 KONTRATAZIOA

III.4.1 AURREKO EKITALDIETAN ESLEITUTAKO ESPEDIENTEAK

ESP.: 1.a eta 8.a

F1 gabezia

Aipatu epeak ADIFek plataformaren obren harrera, amaierako egiaztapena eta behin betiko likidazioa egiteko finkatutako prozeduraren emaitza dira. Horiek EAeko administrazio orokorrak lizitatzen ditu, estatuko administrazio orokorrak, EAeko administrazioak eta ADIFek 2006ko apirilaren 24an sinatu zuten eta 2017ko azaroaren 27an aldatu zen lankidetzaz hitzarmenaren arabera. Horretan oinarrituta, EAeko trenbide-sare berria eraikitze jarduketaren mandatu egiten da. ADIFek finkatu dituen prozeduretako bat da –ADIF Abiadura Handia-ren jarduketaren prozedurak, obra-proiektuak eta -betearazpena onartzeko– amaierako egiaztapena onartzea (IV. eranskina). Obren harrera, amaierako egiaztapena eta behin betiko likidazioa egitea. (5. eranskina erantsi da).

Sustapen Ministerioarekin eta ADIFekin 2006 eta 2017 urteetan izenpetutako lankidetzaz hitzarmenak direla bide, estatuko administrazio orokorrari dagokio EAeko Trenbide Sare Berria eraikitze eskumena, 149.1.21 artikulua (autonomia-erkidego bat baino gehiago zeharkatzen duten trenbideak) eta 149.1.24. artikulua (interes orokorrekoak diren edo autonomia-erkidego bati baino gehiagori eragiten dioten herri-lanak) arabera. Estatuko administrazioaren barne-antolamenduaren barne sortu zen ADIF enpresa publikoa, estatuaren eskumeneko azpiegiturak kudeatzeko. Horregatik parte hartu zuen aldeek izenpetutako hitzarmenean. Estatuko Administrazioaren barneko antolamenduaren buruzko arauak ADIFi egotzitako eskumena ere eztaba da.



Administrazioak lankidetzan aritzeko baliatzen diren tresnetako bat litzateke «kudeaketarako gomendio». HAAJAPEn adierazitakoaren arabera, eskumena duen organoa ez den beste batek ekintzak egitea onartzen duen prozeduretako bat da tresna hori. Administrazio-organo bati egotzitako funtzioak betetzeko orduan hura ordezkatzeko edo aldaketa egiteko dagoen modu bat litzateke.

Hitzarmen horren Hirugarren Klausulako 2. puntuari, plataformako obrak gauzatzeari dagokionez, hau xedatzen du: «Sustapen Ministerioa arduratuko da obrak onartzeaz». Eta Bosgarren Klausulak, Batzorde Teknikoa sortzekoak, batzordeari «proiektuak eta obrak egokitzeko proposamena prestatzea» egokituko zaiola xedatzen du, «Sustapen Ministerioak hori onar dezan».

Hala, onespren-proposamena egiteko eskumena zehaztu ondoren, baita obraren ondorengo onarpena egiteko eskumena ere, obraren harrera, amaierako egiaztapena eta behin betiko likidazioa egiteko prozedura xedatzen du (6. eranskina atxiki da). Hau da eranskin horren 2. apartatua:

2. apartatua. Amaierako egiaztapena. “Hilabeteko epean, obraren harrera egiten denetik hasita, Obra Zuzendaritzak obraren neurketa orokorra egingo du kontratista adjudikaziodunaren aurrean, eta egintza horren akta egingo du, bertaratutakoek sinatuko dutena. Neurketaren emaitza Kontratatari jakinaraziko zaio, eta bost egun baliodun izango ditu Obra Zuzendaritzari adostasuna edo eragozpenak idatziz adierazteko. Hilabeteko epearen buruan, obraren harrera egiten denetik hasita, Obra Zuzendaritzak dagokion zerrenda baloratua egingo du neurketa orokorraren emaitzari dagokionez. Hurrengo 10 egunetan, Obra Zuzendaritzak amaierako egiaztapena emango du dagokion justifikazio-txostenarekin batera...”.

Labur azalduta, ADIF erakundeak, Sustapen Ministerioak, Eusko Jaurlaritzak eta Euskal Trenbide Sarea erakunde publikoak, aurrez azaldutako amaierako egiaztapena emateko, sekuentzia hau bete behar dute, Euskal Autonomia Erkidegoko Trenbide Sare Berriko espedienteak izapidetzan:

1. Obra Zuzendaritzak obraren neurketa orokorra egitea kontratistaren aurrean, horren akta eginda.
2. Kontratatistak 5 eguneko epea du neurketa onartu edo eragozpenak jartzeko.
3. Hilabeteko epearen buruan, obraren harrera egiten denetik hasita, Obra Zuzendaritzak dagokion zerrenda baloratua egingo du neurketa orokorraren emaitzari dagokionez.
4. Hurrengo 10 egunetan, Obra Zuzendaritzak amaierako egiaztapena emango du dagokion justifikazio-txostenarekin batera.
5. Aurreko dokumentazioa Garraio eta Herri Lan Saileko organo eskudunari edo ETSari igorriko zaio, espedienteak eta amaierako egiaztapenaren gastua onartzeko.
6. Horrekin batera, Obra Zuzendaritzak benetan gauzatuak obra guztien Proiektu Eraikiera eskuratuko du Obren Kontrolerako Laguntzaren aldetik.
7. Obra Zuzendaritzak KSIZLri igorriko dio Proiektu Eraiki hori, amaierako egiaztapenaren kopiaekin batera, hark berrikusi eta normalizatu dezan.



8. KSIZLek amaierako egiaztapen horren ikuskapen-txostena egingo du Eraikuntzako zuzendari laguntzailearen oniritziarekin batera, eta dokumentu horiek ETSera igorriko ditu.

Eskumen-esparruak, eta deskribatu diren prozedurek, agerian jartzen dute EAEko administrazioak, kontratazio-espeditenteen kontratazio-organoa den aldetik, ezin duela bermatu kontratazio publikoaren arloko araudiak xedatzen dituen epeak beteko direnik, hizpide dugun kasuan, obraren harrera eta amaierako egiaztapena egiteko faseetan.

Euskal Trenbide Sareak, obra-zuzendaritzen arduraduna den aldetik, eta Eusko Jaurlaritzak, obren mandatu bidezko sustatzailea den aldetik, behin eta berriz idatzi diote ADIF Abiadura Handia-ko Ikuskapen, Kalitate, Segurtasun eta Osasun zuzendariordeari, Sustapen Ministerioko Plangintza eta Proiektuen zuzendariorde orokorrari eta Sustapen Ministerioko Azpiegituren idazkari orokorrari, hitzarmenean adierazten diren izapideei eta baimenei lehentasuna eman eta haiek arin ditzaten. Eskaera horiek, era berean, hitzarmeneko batzorde teknikoaren bileretara eta hitzarmenaren jarraipena egiteko batzordeen bileretara eraman dira, baina, orain bitartean Sustapen Ministerioak eta ADIF erakundeak ez dute mekanismorik jarri abian, erreferentziako lege-xedapen horrek arautzen dituen epeak beteko direla ziurtatzeko. (7.1, 7.2. eta 7.3. eranskinak gehitu dira).

Horrenbestez, amaierako egiaztapenaren kasuan, Eusko Jaurlaritza ezinbestean egongo da ADIFek obra-zuzendaritzaren dokumentuak ikuskatu eta onartzearen mende. Beraz, legediak kontratazio-organoari ezarritako epeak, tarteko ADIFen onarpen-izapidean, luzatu eta gainditu egin dira.

Hitzarmen eta prozedurako egoera atipiko hori administrazioaren kontrol bikoitzaren adierazle dela uler daiteke, berme handiagokoa, administrazio batek baino gehiagok parte hartzen baitu proiektuak eta obrak berak ikuskatzen; egoera horrek, ordea, luzatu egiten ditu izapidetze-epeak. Izan ere, hamaika izapide egin behar izaten dira, ohiko tramitazio batean eta zentzu hertsian egin behar izaten diren sei tramiteen aldean. Hori horrela izanda, kontratazio-organoak ezin du bermatu SPKLren 218. artikulua eta SPKLTBren 235. artikulua arautzen dituzten nahitaezko epeak beteko dituenik, harengandik kanpoko beste administrazio batek egin beharreko gestioek baldintzatuta jarduten baitu.

ESP.: 10.a

F2 gabezia

Estatuko Administrazio Orokorraren, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta Trenbide Azpiegitura Administrazioa erakundearen (ADIF) artean Euskal Autonomia Erkidegoko Trenbide Sare Berria eraikitzeke zenbait jarduketaren mandaturako 2006ko apirilaren 24an sinatutako lankidetzak-hitzarmenak (2017ko abenduaren 27an aldatu zen) hau xedatzen du aldaketan gainean:

Bigarren Klausula, 4. puntua: «Eraikuntza-proiektuak eta horien aldaketak gainbegiratu eta onartzea Sustapen Ministerioko organo eskudunari dagokio».



Bigarren Klausula, 5. puntua: «Sustapen Ministerioaren organo eskudunak onetsi beharko ditu EAEk idatzitako eraikuntza-proiektuak eta horien aldaketak».

Eta ondore horietarako eskumenak dituen organo jakinari dagokionez, hots, ADIF organoari dagokionez, hitzarmeneko azalpenean bertan, Azpiegituren eta Plangintzaren Estatu idazkariaren 2005eko apirilaren 14ko Ebazpena aipatzen da. Horren bidez, ADIFeko lehendakariaren esku utzi ziren GIFi agindutako trenbide-azpiegituretarako proiektuak onartu eta aldatzeko eskumenak, besteak beste, Gasteiz-Bilbo-Donostia abiadura handiko trenbidea eraikitzeko proiektuak idaztea eta Iparra/Ipar-mendebaldea korridorearen barruan Euskal Autonomia Erkidegoko abiadura handiko trenbidea eraiki eta administratzea.

Beraz, EAEko Administrazio Orokorrak Euskal Trenbide Sare Berriaren obrak kontratatzen dituen administrazio modura jarduten badu ere, Sustapen Ministerioak kudeaketarako emandako gomendioak haren jarduna mugatzen du, Sustapen Ministerioarena baita eskumena. Euskal administrazioaren eskumena lankidetzahitzarmenen eta horien bidez emandako kudeaketarako gomendioen arabera da. Hitzarmen eta gomendio horiek osatzen dute esku hartzen duten administrazioen arteko akordioa gauzatzeko oinarritzko esparrua. Zehatzago esateko, euskal administrazioak ezin ditu eraikuntza-proiektuak onetsi, ezta horien aldaketak ere, Sustapen Ministerioa arduratzen baita horiek onesteaz.

ADIFek mandatu bidezko lankidetzahitzarmena garatzeko zenbait prozedura finkatu zituen, tartean, III. eranskina, «Proiektuen, obra osagarrien proiektuen eta zerbitzu berezien birjarpenaren proiektuen aldaketak ikuskatu eta onartzeko prozedura», «ADIF Abiadura Handia-ren jarduketa-prozedurak, obra-proiektuak eta -betearazpena onartzeko» prozeduraren barnean. Hona onartzeko zehaztu zen prozedura, (8. eranskina).

Kasu honetan, aipatu prozeduraren arabera, nahitaez esku hartu behar du Sustapen Ministerioak, proiektua aldatzeko eskaeraren egokitasunari buruzko txostena eginez. Era berean, ADIFek aipatu espedientea onartu beharko du gero, baina Eusko Jaurlaritzaren kontratazio-organok izapidetu baino lehen.

Horrenbestez, onarpenean gertatu den atzerapena ADIFen onarpenak emateko erritmoak baldintzatu du. Hala, kontratazio-organok epez kanpo eman du onarpena.

ESP.: 14.a

F3 gabezia

Legeriak adierazten duenez, obrak onartu eta hiru hilabeteko epearen barruan, gauzatutako obren amaierako egiaztapena onetsi beharko du kontratazio-organok. Eraikuntza-zerbitzutik ezin da amaierako egiaztapena onetsi Zuzendaritza Fakultatiboak azken likidazioa onesten duen ziurtagiria bidaltzen duen arte, obra gauzatzen duen enpresaren adostasunarekin. Kasu horretan, bien neurketen arteko aldean ondorioz, aipatutako epea luzatu behar izan zen.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ESP.: 15.a

F3 gabezia

Legeriak adierazten duenez, obrak onartu eta hiru hilabeteko epearen barruan, gauzatutako obren amaierako egiaztapena onetsi beharko du kontratazio-organoak. Eraikuntza-zerbitzutik ezin da amaierako egiaztapena onetsi Zuzendaritza Fakultatiboak azken likidazioa onesten duen ziurtagiria bidaltzen duen arte, obra gauzatzen duen enpresaren adostasunarekin. Kasu horretan, bien neurketen arteko aldeen ondorioz, aipatutako epea luzatu behar izan zen.

ESP.: 23.a

F1 gabezia

Bermeoko portuko babes-dikearen kokotea konpontzeko premiazko obrak (Fer.: 03E-02/2016) 2016ko ekainaren 13an hasi ziren, 5,5 hilabeteko exekuzio-epearekin.

Zerbitzu zuzendariaren Ebazpenaren bidez, 5 hilabeteen luzatu zen obra egiteko epea; amaiera-data, beraz, 2017ko apirilaren 28a izan behar zen.

2017ko ekainaren 22an egindako obrak hartzearen akta jaso zen (ikus 10. eranskina). Ondoren, ekainaren 27an, obren neurketa orokorra egin zuten obra-zuzendaritzak, obra-zuzendaritzaren laguntza teknikoak eta kontratistak.

2017ko irailaren 18an, 12. ziurtapena izenpetu zen, amaierakoa, baita obra-zuzendaritzak, obra-zuzendaritzaren asistentzia teknikoak eta kontratistak eraikitako proiektua. ESPALDÓN DE BERMEO ABEEak (obra-adjudikaziodunak) aipatu ziurtapenean jasota dagoen neurketa onetsi du, eta horixe adierazi du laburpenean. Alabaina, ABEEak eragozpenak jarri ditu dentsitate handiko hormigoi-blokeei loturiko obra-unitateetan aplikatu den penalizazio ekonomikoen inguruan (ikus 10. eranskina).

Hala, 2017ko irailaren 29an, obra-zuzendaritzak txostena egin zuen ESPALDÓN DE BERMEO ABEEak neurketa orokorrari buruz aurkeztutako eragozpenen inguruan. Txosten hori, 12. ziurtapenarekin (amaierakoarekin) eta proiektu eraikiarekin (2017ko urriaren 5ekoarekin) igorri zitzaion Zerbitzu Zuzendaritzari, onar zezan (ikus 10. eranskina).

Azkenik, 2017ko azaroaren 13an, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituretako sailburuaren aginduaren bidez, kontratuaren amaierako ziurtapenaren zenbatekoa onartu zen.

III.4.2 2017AN ESLEITUTAKO ESPEDIENTEAK

ESP.: 25.a

D2 gabezia

Legeriak adierazten duenez, obrak onartu eta hiru hilabeteko epearen barruan, gauzatutako obren amaierako egiaztapena onetsi beharko du kontratazio-organoak. Eraikuntza-zerbitzutik ezin da amaierako egiaztapena onetsi Zuzendaritza Fakultatiboak azken likidazioa onesten duen ziurtagiria bidaltzen duen arte, obra gauzatzen duen enpresaren adostasunarekin. Kasu horretan, bien neurketen arteko aldeen ondorioz, aipatutako epea luzatu behar izan zen.

Zuinketa egiaztatzeako akta intzidentziarik gabe izenpetu zen, baldintza hauengatik:

- Zuinketa egiaztatzeako akta izenpetu zenean (2017ko uztailaren 3an), kontratistak jada izapidetuta zituen bide publikoa okupatzeko baimena lortzeari loturiko aurretiazko kontsultak Bilboko Udalean–beste udal batzuetan egun batetik besterako kontua da– eta ez zuen aurreikusi baimena ematea geroratu lezakeen kausarik bat ere.
- Obren hasiera 2017ko urriaren 31ra atzeratzearen arrazoia, hain zuzen, udala bide publikoa okupatzeko baimena ematen berandutu izana da; izan ere, udalak ez zuen nahi aipatu obraren behin-behineko instalazioak (itxiturak eta markesinak, aldi baterako espaloiak, oinezkoentzako eta ibilgailuentzako sarbideak, material-pilaketak, garabia, etxolak, obra-bulegoak, etab.) bertan kokatzea, harik eta Ertzilla kaleko berrurbanizazio-lanak amaitu arte (kale horretan instalatuko zirenez etxolak eta obra-bulegoak), eta azken obra horien berririk ez zitzaien eman Eusko Jaurlaritzari eta kontratistari.
- Obrak behin hasita, kontratistak behar ziren kudeaketa guztiak prestutasunez egin izanaren egiaztagiria aurkeztu zituen eta obra-hasieraren data 2017ko urriaren 31 izatea eskatu zuen, eta egun horretatik aurrera hastea obra egiteko 42 hilabeteko epea.
- Sailaren Obren eta Eraikuntzen Zerbitzu Teknikoek eta Obren Instalazioen eta Mantentze-lanen Zerbitzu Teknikoek kontratistaren argudioak egiaztatu zituzten (Bilboko Udalareko arduradun batzuk kontsultatuta) eta eskaera onartzea gomendatu zuten. Halaxe gertatu zen.

ESP.: 27.a

C1 gabezia

Baiki, B gutun-azala ireki zenetik (2016ko ekainaren 29an) kontratua adjudikatu zen arte (2016ko azaroaren 22an) ia bost hilabete igaro ziren; hori bai, prozesuak luzeago jo zuen uztailaren 18an egin ziren baztertze-proposamenengatik; ia bi hilabete igaro ziren kontratazio-mahai zentralak horiek baztertzea erabaki zuen arte.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ESP.: 30.a

A3 gabezia

Balio-judizioan oinarritutako balorazio-irizpideak, administrazio-klausula partikularren pleguaren 30.2.2 klausulan adierazita daudenak, loteka bereizita eta zehaztuta egoteaz gain, Farmazia Zuzendaritzak lizitatzailleek horretarako aurkeztu dituzten laginen gainean egindako analisiaren arabera puntuatzen dira.

ESP.: 37.a

A3 gabezia

Balio-judizioan oinarritutako balorazio-irizpideak, administrazio-klausula partikularren pleguaren 30.2.b klausulan adierazita daudenak, azpi-irizpidetan bereizita daude, eskaintza zehaztasun handiagoz presatu ahal izateko dagokien puntuazioarekin.

ESP.: 38.a

A3 gabezia

Balio-judizioan oinarritutako balorazio-irizpideak, administrazio-klausula partikularren pleguaren 30.2.1.b klausulan adierazita daudenak, azpi-irizpideetan egoki zehaztuta eta bereizita daude.

ESP.: 44.a

E1 gabezia

Oreka ekonomikoa babesletza-kontratua denez, gisa horretako ekitaldien publizitatetik dator oreka, eman den zenbatekoa kontuan hartuta.

III.4.3 KONTRATU TXIKIAK

«65 ondasunen eta zerbitzuen erosketa berrikusi dira (Segurtasun Sailarenak, 41; Osasun Sailarenak, 11; Lan eta Justizia Sailarenak, 9; eta Hezkuntza Sailarenak, 4; guztira, 609.696 euro), eta hauteman dugu zuzenean eman direla, zenbatekoari erreparatuta, aldez aurretik eskaintzak aurkeztuta ematekoak ziren arren».



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ALEGAZIOA

Osasun Saila

Oharra	Alegazioa
49865, 92521, 138963, 166008, 206691, 239704, 262017, 314151, 349766, 387908, 420500	Logopedia-zerbitzu bat da, pazienteak aldatzen doazena. Pazienteei eman beharreko zerbitzuaren aurrekontu egokia kalkulatzea zaila denez, nekez lizitatu daiteke zerbitzu-kontratu ireki bat, zerbitzua beharko duten erabiltzaileengan eragindako ziurgabetasunagatik eta zerbitzura doazen maiztasunarengatik (astean behin, astean birritan, etab.).

Segurtasun Saila

Oharra	Alegazioa
393296	Segurtasun Sailaren Meteorologia Zerbitzuak buien komunikazioak satelite-sistema baten bidez egiten zituen. Komunikaziook, aurreko enpresak 2017ra arte Inmarsat satelitearen bidez egiten zituenak, merkeago den Iridium satelite-sistemaren bidez egiten ditu enpresa berriak (Inmarsat satelitearen kostuak gora eta gora egin zuen 6.000 eurokoa izan arte 2013an; Iridium sistemaren kostuan 60 euro hilean da).
86825etik 86839ra	Fakturak Segurtasun Sailaren goi-tentsioko zentroetako sarbide-ordainsariari dagozkio. Goi-tentsioko horniduretan (1 KW-tik gorakoetan), zentro bakoitzerako saretarako sarbide-ordainsariaren kostua kontuan hartu behar da; energia elektrikoa hornitzeko kontratutik kanpo dago, eta eroapen- eta banaketa-sareen kostua adierazten du. Industria, Energia eta Turismo Ministerioak finkatzen du kontzeptu hori, eta minimo gisa berrikusten du urtero. Kostu hori ez da negoziagarria; sistemaren kostu guztiak estaltzeko araututa eta aurreikusita dago, energiaren kostua eta hura merkaturatzen duenaren kudeaketa-kostua izan ezik. Horregatik, zuzenean ordaintzen zaio enpresa banatzaileari. Isilbidez berritu daitezkeen urteko kontratuak dira.

Lan eta Justizia Saila

Oharra	Alegazioa
451332	2017ko abenduaren 12tik 31ra bitartean, saila estaldura eraginkorrik gabe egon zen, sistemen euskarria EJIera migratzeagatik; hori 2018ko urtarrilaren 1ean hasi zen jardunean. Zerbitzuaren jarraitutasunari eutsi behar zion haren ezagutza zuenak, are gehiago, hain tarte laburrerako izaki.

ABREVIATURAS

ACG	Acuerdo de Consejo de Gobierno.
BEI	Banco Europeo de Inversiones.
CAPV	Comunidad Autónoma del País Vasco.
CMCE	Comisión Mixta del Concierto Económico.
CVFP	Consejo Vasco de Finanzas Públicas.
ETS	Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea.
IVA	Impuesto sobre el Valor Añadido.
LCSP	Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público.
LGS	Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.
LOEPSF	Ley Orgánica 2/2012, de 27 de abril, de Estabilidad Presupuestaria y Sostenibilidad Financiera.
NRFPV	Nueva Red Ferroviaria del País Vasco.
OCE	Oficina de Control Económico.
PCPCAE	Plan de Contabilidad Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi, aprobado por Orden de 25 de junio de 2012, del Consejero de Economía y Hacienda.
PYME	Pequeña y Mediana Empresa.
RGLCAP	Real Decreto 1098/2001, de 12 de octubre, por el que se aprueba el Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas.
TRLCEC	Decreto Legislativo 2/2017, de 19 de octubre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Control Económico y Contabilidad de la Comunidad Autónoma de Euskadi.
TRLCSP	Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público.
TRLPOHGPV	Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco.
TRRPE	Decreto Legislativo 1/2011, de 24 de mayo, por el que se aprueba el Texto Refundido de las disposiciones legales vigentes en materia de Régimen Presupuestario de Euskadi y se regula el régimen presupuestario aplicable a las Fundaciones y Consorcios del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi.
UPV/EHU	Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea.
VIRESA	Sociedad Pública Vivienda y Suelo de Euskadi, S.A. - Euskadiko Etxebizitza eta Lurra, E.A.





I. INTRODUCCIÓN

El Tribunal Vasco de Cuentas Públicas/Herri Kontuen Euskal Epaitegia, conforme a lo establecido en la Ley 1/1988, reguladora del mismo y en su Programa Anual de Trabajo, ha realizado este informe de fiscalización de la Cuenta de la Administración General de la CAPV para el ejercicio 2017.

La fiscalización abarca los siguientes aspectos:

- Legales: cumplimiento de la normativa aplicable en las áreas relativas al presupuesto, endeudamiento, operaciones financieras, personal, contratación de obras, servicios y suministros, concesión de subvenciones y ayudas públicas e ingresos de derecho público.
- Contables: se analiza si la Cuenta se elabora de conformidad con los principios contables que resultan de aplicación.
- Análisis financiero de la situación económica de la Administración General de la CAPV.
- El alcance del trabajo no incluye un análisis sobre la eficacia y eficiencia del gasto. No obstante, las deficiencias detectadas se detallan en el epígrafe “Consideraciones sobre los sistemas de control interno y procedimientos de gestión”.

II. OPINIÓN

II.1 OPINIÓN SOBRE EL CUMPLIMIENTO DE LA LEGALIDAD

1.- El expediente número 33, adjudicado por 6 millones de euros, fue tramitado por el procedimiento de emergencia sin darse las situaciones que describe el artículo 113.1 del TRLCSP para este tipo de procedimiento excepcional (deficiencia B1) (Ver A.18).

2.- En la utilización del procedimiento negociado sin publicidad para la licitación del expediente número 35, adjudicado por 780.000 euros, no se ha justificado de forma suficiente la exención de concurrencia, de acuerdo con los artículos 173.c) y 170.d) del TRLCSP (deficiencia B2) (Ver A.18).

3.- Los Consejos de Gobierno de 25 de abril de 2017, 26 de diciembre de 2017 y 12 de junio de 2018, mediante el procedimiento excepcional previsto en el artículo 24.4 del TRLCEC, han asumido la fiscalización jurídico-económica favorable de gastos del ejercicio 2017 cuyo importe, asciende a 57,7 millones de euros, que fueron informados negativamente por la OCE. Estos gastos corresponden a 92 contratos de servicios por 19 millones de euros, 20 contratos de gestión de servicios públicos por 37,3 millones de euros y 5 contratos de suministros por 1,4 millones de euros. El principal incumplimiento ha sido realizar las prestaciones sin tramitar el oportuno expediente contractual, sin observar los principios de publicidad y concurrencia que hubieran correspondido conforme a lo establecido en el TRLCSP (Ver A.18).

En nuestra opinión, excepto por las salvedades anteriormente descritas, la Administración General de la CAPV ha cumplido razonablemente, en el ejercicio 2017, la normativa legal que regula su actividad económico-financiera.



II.2 OPINIÓN SOBRE LA CUENTA DE LA ADMINISTRACIÓN GENERAL

En nuestra opinión y considerando lo expuesto en las Notas 1 a 4 recogidas en la Liquidación del Presupuesto de 2017, las cuentas adjuntas de la Administración General de la CAPV expresan en todos los aspectos significativos la actividad económica del ejercicio 2017, la imagen fiel del patrimonio y de la situación financiera a 31 de diciembre de 2017, así como de sus resultados y flujos de efectivo correspondientes al ejercicio anual terminado en dicha fecha, de conformidad con el marco normativo de información financiera que resulta de aplicación y, en particular, con los principios y criterios contables contenidos en el mismo.

III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN

Este apartado recoge tanto deficiencias que no afectan de manera relevante al cumplimiento de los principios que rigen la actividad económico-financiera, como aspectos procedimentales que se ponen de manifiesto para la mejora de la gestión.

III.1 PRESUPUESTOS Y CONTABILIDAD

3.1.1.- Los anticipos de tesorería concedidos a la sociedad pública VISESA, han sido registrados extrapresupuestariamente por un importe total de 22,7 millones de euros cuyo destino es la financiación transitoria de la sede de la sociedad y de las existencias de viviendas de protección oficial pendientes de venta. Estos anticipos se concedieron por primera vez en el ejercicio 2008 por un importe de 19 millones de euros y se vienen renovando anualmente.

Con fecha 27 de diciembre de 2018, se ha cancelado este endeudamiento extrapresupuestario y se ha suscrito un préstamo a 8 años de 10 millones de euros.

